


OÑATIKO MIKEL DEUNA JAIEN BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA

2017ko Martxoa



Oñatiko Udala



Farapi Koop.

Aurkibidea

OÑATIKO MIKEL DEUNA JAIEN BERDINTASUN DIAGNOSTIKOA	1
Aurkibidea	1
1. Sarrera	4
1.1. Azterketaren helburua	4
1.2. Txostenaren egitura	4
2. Esparru teorikoa	6
2.1. Jaien erritozko izaera eta bere garrantzia komunitatean	6
2.2. Gizarte, errito eta genero sistemen arteko harremana	7
3. Metodologia	9
4. Oñati ezagutuz.....	10
4.1. Analisi soziodemografikoa	10
5. Mikel Deuna jaien analisi kuantitatiboa	13
5.1. Jaietako jarduera eta tipologiak.....	13
5.2. Jaietako aurrekontuak.....	19
6. Mikel Deuna jaien inguruko analisi kualitatiboa	24
6.1. Jaien prestaketa eta antolakuntza	24
6.2. Ekintzen garrantziaren araberako analisisa.....	29
6.3. Jaietako ekintzetan eta hauen antolaketan emandako aldaketa eta gatazkak	33
6.4. Aldaketarako esparruak eta egon daitezkeen erresistentziak.....	35
6.5. Ekintza feministak eta emakumeen parte hartzea jaietan	37
7. Jaietan emakume eta gizonen parte hartzea genero ikuspegitik	39
7.1. Aurretiko planifikazioa eta prestaketa lanetan.....	39
7.2. Ospakizunetako antolakuntza eta burutzapenean	40
7.3. Jaietako ekintza parte-hartzaileetan.....	40
7.4. Jaietako ikuskizun ekintzetan	41

8. Indarkeria matxista jaietan	43
9. Herritarren “jaien autoetnografia kuadernoai” hurbilpena.....	45
Ondorioak.....	50
Bibliografia	53

1. Sarrera

Oñatiko Mikel Deuna jaiak (Mikel Deuna eguna Irailaren 28an da eta egun horren bueltan 7-10 jai egun egiten dira) genero ikuspegitik aztertzen dituen berdintasun diagnostikoa da hau. Diagnostiko prozesu hau, 2015-2017 epealdian Oñatiko udalak agindu eta Farapik burututako egitasmoa da, udala eta Emakunderen artean finantzatua. Prozesuak osotara hurrengo atal metodologikoak ditu: lan dokumentala, udaleko teknikari eta zinegotziei elkarrizketak, eztabaida talde bat jaien antolakuntzan diharduten eragileekin, formakuntza saioak udaleko ordezkari, eragile eta herritarrekin, txostenaren erredakzioa eta jasotako emaitzen aurkezpen publikoa.

Dokumentu hau osatzeko, Oñatiko Mikel Deuna jaien datu kuantitatibo eta kualitatiboak jaso dira genero ikuspegitik. Ondoren, datu hauen deskribapena eta analisisa egin dira, azkenik, ondorio nagusi batzuk ateratzeko. Jai hauen inguruan egindako gogoeta eta lanketa prozesuak herriko beste jai batzuetara hurbiltzeko ere balio dezake, beti ere kontuan izanik jai bakoitzak bere berezitasun propioak ere izango dituela.

1.1. Azterketaren helburua

Txosten honen helburu nagusia **Oñatiko Mikel Deuna jaiak genero ikuspegitik aztertzea** da, jai berdinzaleago batzuen bidean etorkizuneko esku hartzeak identifikatzeko. Horretarako, jaien eduki sinbolikoetan eta hauek genero ereduak duten harremanen inguruan hausnartuko da eta emakumeen eta gizonen parte-hartzeko aukera berdintasunaren inguruko gogoeta egingo da. Saiakera berezia egingo da maskulinitate eredu hegemonikoak iraunarazten dituzten eta parte-hartze berdinzaleagoa bultzatzen duten eredu eta ezaugarriak identifikatzeko. Gainera, jaien testuinguruan ematen diren genero indarkeria eta erasoen inguruko gogoeta txertatuko da.

Horrez gain eta herritarrekin batean, desiragarria den jai ereduaren inguruko hausnarketa bat garatuko da. Hori formazio saio ezberdinetan lortuko da, herritarrak kontzientziatu eta sensibiltzatzearen bidez. Azkenik, jai berdinzaleen aldeko estrategia zein ekintzak identifikatzeko saiakera bat egingo da.

1.2. Txostenaren egitura

Txosten hau atal ezberdinetan antolatua dago. Lehendabizi, hurbilpen teoriko bat egingo da. Bertan, jaien garrantzi sinbolikoa eta errituzkoa kokatu eta genero sistemekin duen harremana zein den azalduko da. Atal honetan definitu eta deskribatuko dira testuan zehar erabiliko diren terminologia eta kontzeptu nagusiak. Ondoren, ikerketa burutzeko erabilitako metodologia azalduko da, atal kuantitatibo zein kualitatiboa deskribatu eta azalduz. Hirugarren atal batean,

Oñatiko herritarren eta errealitate sozialaren hurbilpen deskriptiboa egingo da. Hemen analisi sozio-demografiako bat garatu dugu.

Txostenaren muina dator ondoren: Oñatiko Mikel Deuna jaien analisia. Analisi hau bi ataletan banatu da, batetik, analisi kuantitatibo bat egiten delako, eta bestetik, jai hauen analisi kualitatibo bat. Guzti hau kontuan izanda, jaietan emakumeen presentzia eta protagonismoaren inguruko hausnarketari zuzendutako atal bat dago, eta ondoren, indarkeria matxistaren inguruko beste bat.

Azkenik, Oñatiko herritarrekin egin diren hausnarketa eta formakuntza saioen deskribapenak eta saio hauetatik ondorioztatu diren hausnarketa edo proposamenak zeintzuk izan diren azalduko da, diagnostikoaren eranskin modura.

2. Esparru teorikoa

Atal honetan jaiak komunitatean duten garrantzia eta genero sistemarekin duten loturaren inguruko hurbilpen teorikoa egingo da. Horretarako, kultur eta genero antropologiatik datozen ikuspegi, kontzeptu eta kategoriak aurkeztuko dira. Atal honen helburua diagnostikoa marko teoriko batean kokatzea da. Honela, posible izango da jaiak gure genero sistema indartzeko ze tresna erabiltzen dituzten identifikatu eta ulertzea, eta baita jarraian erabiliko diren termino eta esanahiak argitzea ere.

2.1. Jaien erritozko izaera eta bere garrantzia komunitatean

Jaiak eduki sinbolikoa duten gizarte eta kultur adierazpenak dira. Herriaren nortasunarekin oso lotuta daude eta herri identitatearen erakusgai sendoa dira, bai kanpora begira eta bai barrura begira: jaiak herri edo komunitate baten identitatea kanpora proiektatzeko tresna edo momentua dira, herriaren irudi alai eta koloretsua erakusteko eta herritar bezala, norberaren onena erakusteko. Gainera, herri barruko dinamikan ere txertatzen dira, herri identitatea indartu eta komunitatearen lotura estutzeko (elkarlanaren bitartez, kalean etengabeko presentzia konpartituz, emoziozko momentuak biziz, herritar izateaz harro egonez, familia eta kuadrilarekin egonez...).

Jaiak orden sinboliko baten barruan kokatzen dira, lotura handia baitute emozioen eta ideien munduarekin. Hargatik, sentimendu eta emozio asko azaleratzen dira jaietan, mekanismo askoren bitartez: esaterako, musika edo dantza. Izan ere, jaien garrantzia eta indarra ez da bakarrik egiten denaren arabera, aitzitik, herritarrek egiten duten horri ematen dioten balio sinbolikoaren (emozionala, identitarioa...) arabera ere bada.

Idea hauek bere mailan ulertu eta interpretatzeko, ezinbestekoa zaigu erritoaren kontzeptua. Erritoaren definizio bat ematen hasteko, esan genezake portaera estandarizatu eta errepikatu mota bat dela, bere barne egiturari erantzuten diona, eta kultur edo erlijio orden finkatu bati jarraitzen diona. Erritoaren ezaugarri nagusietako bat duen dimentsio sinbolikoa da, eta baita lehen aipatutako bi esferen artean egiten duen zubi lana ere: hau da, sinbolikoaren eta sozialaren artean egiten duena.

Era honetan, jaien testuinguruan garatzen diren erritoei iragana edo tradizioaren errepresentazioa egiten dute, esanguraz betetako sinboloen bitartez. Baina era berean, egungo gizarte ordena erreproduzitzen dute eta baita honen baitan dauden hierarkiak, eliteen eraginak, rol banaketak eta emakume eta gizonen irudi idealizatuak ere, besteak beste. Beraz, errituen balio sinbolikoaren eta tradizioaren izenean, ordena finkatua mantentzen ere laguntzen dute.

Dena den, jaietako errituaiek erresistentziarako eta aldaketarako aukera ere uzten dute; izan ere, aipatutako esfera sozial eta sinbolikoaren arteko lotura dagoenez, bietako batean

gertatutako aldaketak bestean ere eragiteko gaitasuna dute. Adibidez, gizarte ordenan gertatutako aldaketek (emakume eta gizonen arteko berdintasunaren aldeko aldarrikapenak, kasu) bere isla izan lezake erritoetan maila sinbolikoan emakume eta gizonak proiektatzeko eran.

Kontuan izan behar dugu kultur sistemak etengabeko eraldaketa eta birdefinizioan daudela eta prozesu dinamikoak direla. Hala ere, sarritan tradizioa zerbait estatiko eta egonkor bezala ulertzen da, belaunaldiz belaunaldi aldaketa gabe pasatu izan balitz bezala, eta horrela, tradizioak gero eta balio gehiago metatu izan balu bezala. Ikuspegi honi erantzunez, Honsbawm-ek (1986) tradizioa bizirik eta etengabeko bilakaeran dagoen zerbait dela eta ez dela errepikapen hutsean gertatzen aipatzen du. Herriko jaietako erritualetan arreta jarrita, laster konturako gara urteetan zehar aldaketak txertatu direla arrazoi ezberdinak medio (ekonomikoak, interes berriak, parte hartze faltagatik ekintzen desagertpenak, teknologia berrien erabilera...).

Horregatik emakume eta gizonen parte hartze parekidearen eta berdinzalearen kontra "tradizioa" aldarrikatzen denean, atzean beste arrozoi batzuk daudela pentsatu beharko genuke, emakume eta gizonen botere banaketarekin eta pribilegio maskulinoak ez galtzarekin lotutakoak alegia.

2.2. Gizarte, errito eta genero sistemen arteko harremana

Genero sistemen hurbilpen teoriko bat egiteko, lehendabizi genero kontzeptua argitu beharko dugu. Generoa gizarte jakin batean emakume eta gizon izatearen esanahi bezala definitu dezakegu. Kulturalki eraikitako kontzeptua da eta prozesu historiko dinamiko eta aldakor bezala ulertu behar da. Generoa gizarte harremanen esparruan txertatzen da eta, beraz, beste aldagai eta hierarkizazio era batzuei lotzen zaio, hala nola, adinari, klaseari edo etniari.

Emakume eta gizon bezala izan eta bizitzeko aukera asko dauden arren, genero sistemaren baitan hierarkizazio batzuk ezartzen dira, maskulinitate eta feminitate eredu hegemonikoen bitartez. Hau da, emakume eta gizon izateko era batzuek beste batzuek baino onarpen eta balio sozial gehiago dute. Are gehiago, emakume eta gizon izateko era batzuk baztertu eta zigortu ere egiten dira. Esaterako, mutikoen artean balio sozial gehiago izango du futboleko ondo jokatzeko xakean iaioa izateko baino, eta emakumetasunaren eraikuntza hegemonikoan pisu gehiago du ama ona izateko, gizontasunaren eraikuntza hegemonikoan aita ona izateko baino. Honi gehitu egin behar zaio gure gizartean, feminitate ezaugarriek maskulinoek baino balio sozial gutxiago dutela, eta era honetan, emakumeak, kolektibo bezala, desberdintasun posizio batean daudela gizonetikiko.

Eredu hegemoniko hauek eguneroko bizitzan garatu eta erreproduzitzen dira, emakume eta gizonen inguruan dauden estereotipoen bitartez. Genero estereotipo hauen helburua gizonak rol eta zeregin jakin batzuetarako hobeto prestatua egotea gauza naturaltzat agerraraztea da (del Valle, 1997).

Jaien testuinguruan ere, balore eta rol batzuen transmisioa indartzen da, genero estereotipo ideal hauei lotuta. Izan ere, emakumeen ardurak, parte hartzerako jarduerak, espazioak eta denborak haien etxeko espazioari lotuta eta zaintzaile eginkizunari lotuta agertzen dira sarritan (umeen ekintzetan, janaria zerbitzatzan...). Eta jaietako erritual nagusiak, maskulinitasun eredu hegemonikoaren proiektzioak izaten dira, non gizona protagonista den eta berak egiten dituen ekintzak publikoki txalotuak diren (jarduera gastronomikoetan, gaueko kontzertuetan, kiroleetan...).

Horregatik esan genezake jaietan modu kondentsatuan islatzen direla gizarte errealitatea, eta honen baitan genero sistemak eta beste botere eta hierarkia harremanak ere. Jaietan transmititzen diren sinbolo eta baloreak orden soziala indartzen laguntzen dute, eta aldi berean, erritoko esferan ematen diren aldaketek, eragin zuzena dute bizitzaren alor guztietan. Dena den, azpimarratzekoa da errazagoa dela eguneroko egituretan berdintasunaren aldeko aldaketak txertatzea esfera sinboliko eta erritokoetan baino, azken hauek tradizioaren ideia estankuari eta sakratutasunari eusten baitiote, "politika" kanpoan mantendu daitekeen esparrua balitz bezala.

Horregatik, jaiak zerbait isolatu bezala eta eguneroko bizitzarekin lotutarik ez balute bezala ulertzen dituen ikuspegiari aurre egin, eta jaien garrantzi sinboliko eta erreala aldarrikatzen dituen ikuspegi bat landu behar dugu. Azken finean, jaiak, kultur ondarea baitira, hau da: herri nortasun eta identitatearen isla dira eta giza harremanak, eta hauen artean, genero harremanak, transmititu eta indartzen dituen espazioa dira. Zentzu honetan, emakume eta gizonen berdintasunean eraldaketarako izugarritzko gaitasuna dute jaiak.

3. Metodologia

Jaien generoaren araberako analisi hau egiteko metodologia kuantitatibo zein kualitatiboa erabili dira. Jaien analisi honetarako **azken hiru urteetako** Oñatiko Mikel Deuna jaietan oinarritu gara, aztertu ditugu: **2013, 2014** eta **2015** urteetakoak alegia.

Lehendabizi, Oñatiko errealitate soziodemografikoa eta jaiak ezagutzeko lan dokumentala egin da. Horretarako, datu estatistikoak, jaien programak, argazkiak eta aurrekontuak erabili dira. Material guzti hau oso baliagarria izan da lehen hurbilpena egiteko eta analisi kualitatiborako markoa osatzeko.

Ondoren, elkarrizketa sakon batzuk egin dira Oñatiko kultur teknikariarekin eta kultur suspertzailearekin, eta baita Oñatiko udaleko alderdi ezberdinetako zinegotziekin ere. Gero, eztabaida talde bat ere burutu da, jaien antolakuntzan parte hartzen duten herriko eragile ezberdinekin. Talde honetako parte hartzaileei dagokionez eta jaietan tipologia ezberdinetako ekintzak daudela ikusita, tipologia guztietako talde antolatzaileen ordezkaritza egoteko saiakera egin da (kirolak, musika, dantza, gastronomia, haurrentzako jarduerak...). Eztabaida talde honen bidez eta aurretik jasotako informaziotik abiatuz, jaietako egun eta ekintza nagusietan emakume eta gizonen parte-hartzearen inguruko informazioan sakondu da. Honela, informazio bilketa guzti hau analizatu eta esku artean duzun txosten hau erredaktatu da.

Prozesuarekin jarraitzeko, aipatu bezala, hiru formakuntza saio egin dira, udaleko ordezkariarekin, eta jaien antolakuntzan diharduten eragileekin eta interesatutako herritar ororekin bi. Bertan, dinamika parte-hartzaileen bitartez, parte hartzaileak jaietako genero ikuspegi batean sensibilizatu dira. Horri esker, posible izan da parte hartzaileek beren herriko jai ereduaren inguruko hausnarketa bat garatu eta etorkizunean pentsatzen jartzea: nolako jai eredu bat nahi dugu herrian? Ze estrategia garatu daiteke jai berdinezaleago batzuen bidean? Bestetik, jaiak euren kabuz etnografiatu edo analizatzera animatuko dituen koaderno bat ere banatu zaie, aurrez jaien inguruan jasotako informazioa eta garatutako sensibilizazioa praktikan jartzeko. Hala 2016ko Mikel Deuna jaiak aztertu dituzte.


Diagnostikoan topatzen diren zitetan ahal izan den heinean anonimotua mantentzean saiatu gara, horrexegatik ez da izenik agertzen eta taldeei dagokionez harremana duten gaiarekiko lelo bat jarri zaie.

4. Oñati ezagutuz

4.1. Analisi soziodemografikoa

Oñatik 11.276 biztanle ditu, INEko 2015ko urtarrilaren 1eko datuetan oinarrituta. Hauetatik %50,38 emakumezkoak (5.681 guztira) eta % 49,61a gizona zkoak dira (5.595 guztira).


Oñatiko biztanleriaren adinaren arabera analisi egiteko, Oñatiko eta EAEko biztanleria alderatu ditugu, adinaren eta sexuaren arabera.



Grafikoa 1 eta 2: Oñatiko biztanleria sexuaren eta adinaren arabera. 2015eko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria:INE

Egilea: Farapi Koop. Elkartea



Grafikoa 3 eta 4: EAEko biztanleria sexuaren eta adinaren arabera. 2015eko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria:INE

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Grafiko hauen bidez ikus dezakegu, Oñatiko eta EAE osoko biztanleria alderatuz gero, nahiko ezaugarri antzekoak ematen direla, hau da: adin-taldeei dagokionez, bai Oñatin eta bai EAEn, biztanleria gehiena 30etik 60 urtera bitartean doan adin tartean kokatzen dela, nahiz eta Oñatin, adin helduagoko jende eta haur gehixeago topa ditzakegun EAEn baino.

Datu hauen atzean ezkututzen den errealitatea ezagutzeko, oñatiarren profiletan zehaztuko dugu, jatorriari erreparatuz. Horretarako, hurrengo taulan, egungo Oñatiko biztanleria jaiotako lekuaren arabera bereiztu dugu:

OÑATIKO BIZTANLERIA JATORRIAREN ARABERA	
Estatu Espainola	10576
EAE	9294
Gipuzkoa	8972
Oñati	7496
Beste udalerrietan	1476
Beste probintzietan	322
Beste Autonomia Erkidego batean	1282
Atzerrian	700


Taula 1: Oñatiko biztanle kopurua jaiotako lekuaren arabera. 2015eko urtarrilaren 1eko datuak.

Iturria: INE

Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Datu hauek agerian uzten duten bezala, Oñatin bizi den biztanleria osotik %66,47a herrian bertan jaioa da eta %13,08a beste udalerrietan. %79,56a Gipuzkoan bertan jaioa da eta %2,85a soilik jaio da beste probintzia batzuetan. Gainerakoak beste Autonomia Erkidego batzuetakoak (%11,36) eta atzerrian jaioak dira (%6,20). Honenbestez, esan dezakegu, Oñatiko biztanleriaren gehiengoa oñatiarra dela eta oñatiarrak ez diren kasuan ere, gehiengoa gipuzkoarrak direla.

Estatu espainoletik kanpo jaiotako 700 oñatiarrei dagokionez, hauek dira euren jatorriak, kontinentearen arabera:



Grafikoa 5: Oñatin bizi den atzerrian jaiotako biztanleria, jaiotako kontinentearen arabera. Iturria: INE Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Grafiko honetan ikus daitezkeen bezala, Oñatin aurkitzen diren atzerritarren gehiengo handi bat amerikar jatorrikoa da (hegoamerikarrak nagusitzen dira hauen artean batez ere).

Guzti honetatik atera dezakegun ondorio nagusia, Oñatiko biztanleria gehiena bertakoa dela eta adinari dagokionez, 30-60 urte bitarteko adin-tartean kokatzen dela da. Horrez gain, 60 urtetik gora ere oro har EAEn baino jende gehiago dago, batez ere emakumeen artean, eta baita 0-10 urte bitarteko haurretan ere, batez ere mutikoen artean.

Biztanleria gehiena oñatiarra izatean, gehiengoak herriarekiko lotura sendoa izango duela uste dugu, hau da: bertako jai, erritu eta tradizioekiko urteetako lotura bat garatua izango duela.

5. Mikel Deuna jaien analisi kuantitatiboa

5.1. Jaietako jarduera eta tipologiak

Jaien analisi honetarako **azken hiru urteetako Oñatiko Mikel Deuna jaietako programazioak** aztertu ditugu: 2013, 2014 eta 2015 urteetakoak alegia.

Mikel Deuna jaietan jarduera anitz egiten dira, garrantzi maila eta parte-hartzaile profil ezberdinekin. Jaietako ekintza eta errituak, bizitza sozialeko beste esparru batzuekin lotura dute, eta sarritan hauei egiten diete erreferentzia zuzena (kirolak, erlijioa...). Gainera, jaietako jarduera batzuk publiko oso konkretu bati zuzentzen dira, haurrentzako ekintzak esate baterako. Aldagai hauetan oinarrituz, Oñatiko jaietako ekintzen tipologiaren sailkapena egin dugu, hurrengo kategoriak zehaztuz¹:

- Haurrentzako ekintzak
- Musika ekintzak
- Kirol ekintzak
- Aldarrikapen ekintzak
- Ekintza kulturalak
- Ekintza gastronomikoak
- Ekintza erlijiosoak
- Zezenen ekintzak²
- Dantza ekintzak
- Nekazal ekintzak
- Ikuskizunak
- Sari-banaketak


Kontuan hartu behar dugu ekintza asko ez direla guztiz tipologia bakar batean sartzen eta beste mota bateko jarduerekin ere gurutzatzen direla (jotak ekintza musikal bat badira ere, ekintza kulturalen kutsu bat ere badute, edo ekintza batzuk haurrentzakoak izanagatik, kirol ekintzak ere badira...). Dena den, orokorrean, jaietako jardueren erreproduzitzen duten bizitza sozialeko esparruan eta jardueren helburu nagusian oinarritu gara kategoria batean edo bestean sartzeko.

Analisi honetarako Mikel deuna jaietako azken hiru urteetako programazioetan oinarritu gara (2013, 2014 eta 2015 urteak), eta guztira, 300 ekintza baino gehiago barneratu ditugu. Honek ez du esan nahi ekintza gehiago egin ez direnik, baizik eta programetan oinarrituta hauenek

¹ Gehigarrietan zerrenda horren baitan sartu daitezkeen ekintza adibideak agertuko dira. Kontutan izan zerrenda horretako adibideak orokorrak direla ez Oñatikoak.

² Zezenketak, izan dezaketen pisuaren arabera, alor berezitua bezala lantzen dugu baina kasu batzuetan beste arlo batzuen baitan sartzen da (haurren ekintzak, kultur ekintzak...), kasu honetan hola egin dugu atal batzuetan.

izan direla publiko egin direnak. Ondorengo grafikoetan analisi honen lehen hurbilpena egiten da, tipologia bakoitzeko ekintza kopuruak eta hauek iraun duten denbora azalduz.



Grafikoa 6 eta 7: Oñatiko Mikel Deuna jaietako ekintza kopurua eta ekintza hauek iraun duten denbora, tipologiaren arabera. 2013, 2014 eta 2015eko Oñatiko jai egitarauetatik jasotako datuak. "Leienda" ehunekoaren arabera ordenatuta dago gehienetik gutxienera, eta "gazta" erlojuaren orratzen arabera, biak erlazionatuz. Iturria: Oñatiko Udala. Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Emaitza hauen bidez **musika ekintzek berebiziko garrantzia** dutela ikus dezakegu. Izan ere, ekintzen %32a eta ekintza guztien denboraren %29a osatzen dute. Hauen artean, honako ekintza hauek topa ditzakegu, besteak beste: herriko bandaren kalejira eta kontzertuak, mariatxiak eta jotak edo gazteentzako kontzertuak. **Haurrentzako ekintzek ere pisua** dute jaietan. Ekintza kopuru guztien %12a eta ekintza guztien denboraren %24a osatzen dute hauek. Bertan aurki ditzakegun ekintzen artean haur parkeak, jolasak, barrakak edo urtean zehar jaiotako haurren ongietorria (Atsolorra deitua) leudeke, besteak beste. **Kirol ezberdinek ere** badutela beren pisua jaietan ikusi dugu. Azken hauek, ekintza guztien %13a eta ekintza guztien denboraren %14a osatzen dute, eta bertan aurki ditzakegu, besteak beste: pilota txapelketak, arku tiraketa edo herri kirolak.

Hala ere, kontuan izan behar da, musika ekintzak oro har publiko osoari zuzenduak dauden ekintzak direla, eta bestelako edozein ekintza lagundu dezaketzen zeharkako ekintzak izan daitezkeela jaietan (azoka bat girotzeko trikitia, adibidez). Horrez gain, kontzertuak herriko hiru gune ezberdinetan ematen dira, sarritan bi kontzertu aldi berean ematea ere posible eginaz (esaterako, bata txosna-gunean eta bestea, herriko plazan). Beraz, errazagoa da maizago topatzea. Haurrentzako ekintzak ere, hurrei zuzenduak egonagatik, sarritan kirol ekintzak izan daitezke, edo beste mota bateko ekintzak. Ekintzen denborari dagokionez, haurren ekintza asko egun osoan zehar mantentzen dira, barrakak bezala, eta ondorioz, haurren ekintzen iraupen tasetan eragiten du.

Hargatik, **kirolek** jai hauetan betetzen **duten papera, garrantzitsua** eta azpimarratzekoa iruditua zaigu, ekintza gehienak behin eta berriz errepikatzeaz gain, **horietako asko genero-rol maskulinoari zuzenean lotzen** zaizkien ekintzak direlako: herri kirolak, artzain txakur lehiaketa, arku tiraketa, pilota (txosna-guneak zein herriak antolatutako bi txapelketa mota), plater tiraketa, mus txapelketak, bolo jaurtiketak, haurrentzat ere pilota eta sokamuturra... Gutxi dira bi genero-roleri irekita egon daitezkeen ekintzak: txirrindulari lasterketa, mendi martxak...

Ondorioz, badirudi herriko mugimendu feministak errealitate horren kritika egin nahi izan duela, esaterako, Egun Morean “Olinpiada Moreak” ezarriz urtero, edo 2015ean FRONTEfemiNISTa txapelketa antolatuz.

Bestetik, **ekintza gastronomiko eta kulturalak** ere badute zeresana Oñatiko Mikel Deuna jaietan. Izan ere, ekintza gastronomikoek ekintza guztien %11 eta ekintza guztien denboraren %9a osatzen dute, ekintza kulturalak ekintza guztien %10 eta ekintza guztien denboraren %8 osatzen duten bitartean. Hala ere, aipatzekoa da ekintza mota hauek ere publiko askoz zabalagoa izan dezaketen ekintza mordoa barne-hartzen dituztela: bertso jaialdiak, argazki-erakusketa, bazkariak, poteoak... Gainera, ekintza gastronomikoen kasuan ere, gune ezberdinetan eta aldi berean, esaterako, bazkari bat baino gehiago antolatua egotea posible da (bata herriko plazan eta bestea txosnagunean, esaterako).


Jaietako erritual eta ekintzen analisisan sakontzen jarraitzeko, beste aldagai batzuk ere txertatu nahi izan ditugu: horiek **jai ekintza ospatzen den eguna eta ordutegia** lirarteke. Izan ere, jaiak nahiz eta gutxi gora behera, zortzi egunez ospatu, egun denek ez dute garrantzi berdina. Horrez gain, pertsona guztiek ez dituzte aukera berak egun batzuetan edo besteetan parte hartzeko.

Oñatiko jaietako egun indartsuenak **Errosario Bixamona edo Disfraz Eguna** eta **Herri Eguna** dira askorentzat, herritarren aldetik parte hartze gehien barne-biltzen duten egunak direlako.

Disfrazen Eguna, da azkeneko eguna. Jende dena disfrazatzen da ta Oñati dana kalera ateratzen da, eta gero... Hola egun potentena nik disfrazen eguna ta Herri Eguna ere bai (...), egia da jende dena kalea ateratzen dela baserritarrez jantzita, eta San Migel eguna ere, egia da astegunez tokatzen bada ba klaro, horrek eragiten du jaietan. Baino egun hola potentenak nik Disfraz Eguna ta Herri Eguna.

Aipatzekoa da txosnaguneak jaietako bere egunak izendatzen dituela, esaterako, jai ofizialetan edo, Mikel Deunaren eguna den aldi beran, txosnagunean aniztasun kulturalaren edo gatzetxoaren eguna ospatuz. Egitarauan gune horretan ematen diren ekintza guztiak nagusienak soilik jasotzen dira.

Jarraian, **Errosario Bixamoneko edo Disfraz Eguneko ekintzak** eta **Herri Eguneakoak** zein diren aztertuko dugu, tipologiaren arabera:




Grafikoa 8 eta 9: Errosario Bixamoneko edo Mozorro eguneko, zein Herri Eguneko ekintza kopurua, tipologiaren arabera. 2013,2014 eta 2015eko egitarau ofizialetako datuak. Iturria: Oñatiko udala Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Grafikoan ikus daitekeen bezala, Errosario Bixamoneko edo Disfraz Eguneko ekintzei dagokionez, musika ekintzak dira nagusitasunez gehien ematen diren ekintzak: Rocklean kalejirak edo bandarenak, kontzertuak, DJ bertsoiak... Ondoren, haurren ekintzak (sokamuturra legoke hemen) eta ekintza gastronomikoak (paella txapelketa) dira gehien ematen direnak.

Herri Eguneko ekintza nagusiak ere musika ekintzak dira, gehiengo altu batekin: txistularien kalejira, trikitilarien erromeriak goizean eta arratsaldean, gainerako ekintzak girotzen, gaueko kontzertuak... Bigarren ekintza mota nagusiak, ekintza gastronomikoak direla ikusten da eta bertan aurki ditzakegu, sagardo-dastaketa, herri bazkaria eta txosnagunean ematen den bazkaria... Bestetik, arratsaldez protagonismoa herri kirolek hartzen dute egun honetan.


Mikel Deuna Eguna ere, jaietako patroia eguna izanik, garrantzitsua dela iruditu zaigu bertan ematen diren ekintzak zein diren ikertzea. **Egun Moreak** ere herriko mugimendu feministaren indarra zenbaterainokoa den erakusten du eta gainera, Oñatiko Mikel Deuna jaien berezitasunetako bat da, egun hau ez baita Euskal herriko beste herrietako jaietan eman ohi den zerbait, ezta Oñatiko beste jai batzuetan eman ohi den zerbait ere. Hargatik, garrantzitsua da bertan ematen diren ekintzak zein diren ikertzea ere.

MIKEL DEUNA EGUNEKO EKINTZAK



- Haurrentzako ekintzak
- Musika ekintzak
- Kirol ekintzak
- Aldarrikapen ekintzak
- Ekintza kulturalak
- Ekintza gastronomikoak
- Ekintza erlijiosoak
- Dantza ekintzak
- Nekazal ekintzak
- Ikuskizunak
- Sari-banaketak

EGUN MOREKO EKINTZAK



Grafikoa 10 eta 11: Mikel Deunaren eguneko eta Egun Moreko ekintza kopurua tipologiaren arabera. 2013,2014 eta 2015eko Oñatiko jai egitarauetatik jasotako datuak.
Iturria: Oñatiko Udala Egilea: Farapi Koop. Elkarte


Mikel Deuna eguneko ekintza nagusiak ere musika ekintzak direla baieztatu dezakegu grafikoa honetan. Goizeroko txistularien kalejira Oñatiko musika bandaren kalejira eta kontzertua eta gauetako kontzertuak aurki ditzakegu euren artean. Hurrengo ekintza nagusiak, haurrentzako ekintzak eta kirol ekintzak dira, eta bertan leudeke, besteak beste, haur parkea edo herri mailako plater tiraketa.

Grafikoan ikus daitezkeen bezala, Egun Moreari dagokionez, ekintza mota ezberdinak nahiko modu orekatuan ematen direla esan dezakegu. Hala ere, nagusienak ekintza gastronomikoak, eta musika ekintzak lirateke, baita kirol zein aldarrikapen ekintzak ere.


Ekintza jakin batzuk urtero errepikatzen dira egun hauetan. Esaterako, Mikel Deuna egunari dagokionez, txosnagunean argazki erraldoia eta txokolatada goizean, herri mailako plater tiraketa lehiaketa, Meza Nagusia, Oñatiko bandaren kalejira eta kontzertua, Haur parkea... Herri egunari dagokionez, nekazal azoka trikitiarekin, sagardo-dastaketa, herri bazkaria, herri kirolen emanaldia, Esnalen Salbea... Egun Moreko ekintzei dagokionez, berriz, "Olinpiada Moreak" eta eraso sexisten aurkako kazerolada, urtero errepikatzen diren ekintzak dira.

Aipatzekoa da, **Egun Morea eta Herri Eguna larunbatez** ospatzen direla guk aztertutako urte guztietan (2013an Egun Morea ostiralez ospatu bazen ere). Mikel Deunaren eguna irailaren 29an izaten da, eta beraz, urte horretan tokatzen den astegunaren arabera ezberdina izaten da. Errosario Bixamona edo Disfraz Eguna, normalean astelehenez ospatzen da, jaien azken egunean. Oro har, larunbat eta igandek astegunek baino pisu handiagoa izaten dute jaietako egitarauetan, eta horregatik, egun horietan ze ekintza mota nagusitzen diren aztertzea ere beharrezkoa dela uste dugu. Hargatik, jarraian, jaien barneko **larunbat eta igandeetan ze ekintza burutzen diren** ere aztertuko dugu:

LARUNBATETAKO EKINTZAK



IGANDETAKO EKINTZAK




Grafikoa 12 eta 13: Larunbatetako eta igandetako ekintza kopurua tipologiaren arabera. 2013,2014 eta 2015eko Oñatiko jai egitarauetatik jasotako datuak.

Iturria: Oñatiko Udala Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Larunbat zein igandetako ekintza nagusiak, musika ekintzak, kirol ekintzak eta haurrentzako ekintzak direla ikus dezakegu grafiko hauetan, hurrenez hurren. Ez dago diferentzia handirik ekintza motari dagokionez larunbat edo igandetako ekintzetan. Hala ere aipatu behar da larunbatak eta igandeak, astegunekin alderatuz, jende gehiago biltzen dituzten egunak direla eta beraz, bertan egiten diren ekintzek nagusitasun bereziagoa dutela. Kontzertuek hartzen dute protagonismoa egun hauetan, hau da, gauetako ekintzek.

Azkenik, jaietan ekintzen egunaz haratago, egunaren momentu bakoitzean ekintza batzuk edo besteak lehenesten dira, eta ondorioz, parte hartzaileen profil konkretuak erakartzea lortzen da. Era berean, egunaren orduaren arabera, herritar batzuek edo besteek parte hartzeko aukera gehiago izango dute (enpleguko ordutegiaren arabera, umeen zaintzarekin uztartu behar dutelako...). Horregatik, jaien programako ekintzen alderdi honi ere arreta jarriko diogu. Ondorengo grafikoan azken hiru urteetako ekintza tipologiak egiten diren orduaren arabera sailkatu ditugu, ondorengo ordutegietan bereiztuz:

- Goiza: eguerdiko 12:00ak bitartean hasten diren ekintzak
- Eguerdia: 12:00 eta 14:00 bitartean hasten diren ekintzak
- Arratsaldea: 15:00 eta 19:30 bitartean hasten diren ekintzak
- Gaua: 20:00etatik aurrera hasten diren ekintzak
- Egun osoa: egun osoko ekintzak



Grafikoa 14: Oñatiko Mikel Deuna jaietako ekintzen eguneko momentua. 2013, 2014 eta 2015eko Oñatiko jai egitarauetako datuak.

Iturria: Oñatiko Udala Egilea: Farapi Koop. Elkarte


Grafiko honetan ikus daitekeen bezala, Oñatiko Mikel Deuna jaietako ekintza gehienak arratsaldean ematen dira (hain zuzen ere, ekintzen % 40,68a), ondoren gauez (% 22,72a) eta gero eguerdian (% 18,29a). Goizean eguerdian baino ekintza gutxiago emate dira (ekintza guztien % 16,83a alegia) eta egun osoan zehar ematen diren ekintzak ere oso urriak dira (% 1,46a).

Arratsaldeko ekintzen artean, ematen diren ekintza nagusiak musika ekintzak, haurrentzako ekintzak eta kirol ekintzak dira, hurrenez hurren. Gauez ematen diren ekintzei dagokionez, hemen ere musika ekintzak edo kontzertuak dira nagusi alde handiarekin, eta gero, ekintza kulturalak eta aldarrikapen ekintzak genituzke, kopuru murriztagoan. Azkenik, eguerdiko ekintzen artean, ekintza kultural eta gastronomikoak ia parean daudela ikus dezakegu.

Grafikoan ikusten denez, arratsaldea eta eguerdia dira ekintza mota gehien barne hartzen dituzten eguneko momentuak eta beraz, esan dezakegu, horiek direla parte hartzaile anitzenak (hau da, herriar ezberdinak) biltzen dituzten momentuak. Zentzu honetan, interesgarria litzateke jardueren ordutegiak oñatiarren behar eta lehentasunetara egokitzen diren aztertzea eta genero aldetik, parte hartzeko aukera berdintasuna sustatzen duten ala ez ikustea. Hurrengo ataletan, gai honen inguruko hurbilpen zehatzagoak egingo ditugu.

5.2. Jaietako aurrekontuak

Jaiek herrian duten garrantzia agerian uzten duen beste aldagai bat aurrekontuarena da, izan ere, udaletako aurrekontuaren parte handi bat jaietara zuzentzen da. Aurrekontu honekin antolatzen diren jardueren oñatjarren lehentasun eta beharrei erantzun beharko liokete, eta emakume eta gizonen izan dezaketen aukera eta interes ezberdinei erreparatuz, egitarau berdinzale bat osatu. Era berean, antolatzen diren jardueren guztietan emakume eta gizonen eredu berdinzaleak sustatu beharko lituzkete eta berdintasunean parte hartzea bermatu. **Jaietako jardueren tipologiaren arabera, aurrekontua zertan gastatzen den ikusiz, ondorengo analisi hau egitea lortu dugu:**



Grafikoa 15 eta 16: Jaietako ekintzei bideratutako aurrekontuaren gastua, tipologiaren arabera. 2015eko aurrekontua eta 2013, 2014 eta 2015eko aurrekontuen batz bestekoak.
Iturria: Oñatiko udala. Egilea: Farapi Koop. Elkarte


Musika ekintzak atala da aurrekontuaren zati handiena daraman ekintza tipologia bi kasuetan, eta *besteak* atalak jarraitzen dio. Izan ere, azken atal honen barruan doaz jaiak aurrera ateratzeko gastu orokorrak (langileen kontratazioak, argiztapena, karpa...). Jardueren tipologietan erreparatuta, ekintza gastronomikoek eta haurrentzako ekintzek jarraituko liekete musika ekintzei eta *besteak* atalari, hurrenez hurren.

Musika ekintzen artean kontzertuak dira diru gehien eskatzen dutenak, danborradako sonorizazioa... *Besteak* atalaren barruan, SGAE ekitaldien autore eskubideak eta artisten gizarte segurantzak edo karpenei zein mahai eta aulkien muntaketa topa ditzakegu, gastu nagusi bezala. Ekintza gastronomikoetan jende ezberdinei emandako bazkariak laudeke (Servyrest)


eta azkenik, haurrentzako ekintzetan, haur parkea da diru gehien eskatzen duena, ondoren sokamuturrerako zezanak eta gero, haurrentzako antolatzen diren jolasak.

Datu hauetan ez da islatzen eragile batzuek diru laguntzen bidez jasotzen duten laguntza edo diru-kopurua. Hargatik, ondorengo grafikoek bidez, eragile bakoitzak jasotzen duen diru laguntza kopurua aztertuko da, eragile horiek antolatzen dituzten ekintzen tipologiaren arabera, kasu batzuetan eta besteetan ekintza multzoak berak jasotzen duenaren arabera jasoko da. Batetik, azken urtean eman diren diru-laguntzak eta bestetik, azken hiru urteetan emandako diru laguntzen bilakaera aztertu ditugu.

2015eko DIRU-LAGUNTZAK



2013-2015 DIRU-LAGUNTZAK




Grafikoa 17 eta 18: Oñatiko jaietan eragile bakoitzak jasotako diru-laguntza kopurua, burutzen dituzten ekintzen tipologiaren arabera. 2015eko datuak eta 2013, 2014 eta 2015eko datuen batz bestekoak. Iturria: Oñatiko Udala Egilea: Farapi Koop. Elkartea


Grafiko honetan ikus daitekeen bezala, azken urtean diru-laguntza gehien jaso dituen eragilea nekazari batzordea izan da, txosnak ondoren eta kirol ekintzak hirugarren. Modu honetan ikus dezakegu, aurrekontuetan hainbesteko pisua ez duten ekintzek zergatik ez duten pisu hori: diru-laguntza bidez doazelako alegia. Hemen leudeke herri eguneko hianbat ekintza (nekazal azoka...), egiten diren kirol ekintza ugariak (herri kirolak, txapelketa ezberdinak...), txosnetako zenbait ekintza...

Ondorengo grafikoetan, bai aurrekontuetan eta bai diru-laguntzetan, azken hiru urteetan egon diren bilakaerak zehazten dira:

**AURREKONTUAREN BILAKAERA
2013-2015**



**DIRU-LAGUNTZEN BILAKAERA
2013-2015**



Grafikoa 17 eta 18: Oñatiko jaien aurrekontuaren eta eragile bakoitzak jasotako diru-laguntzen bilakaera, ekintza tipologiaren arabera. 2013, 2014 eta 2015 urteetako bilakaera.

Iturria: Oñatiko Udala Egilea: Farapi Koop. Elkartea

Aurrekontuen bilakaeraren grafikoari dagokionez, musika ekintzen aurrekontuak azken hiru urteetan izan duen gorakada nabarmena ikus dezakegu. Aldi berean, ordea, behera egin du diru-laguntzetan musika ekintzetarako bideratutako diru kopuruak, bigarren grafikoan ikusten den bezala. Ekintza gastronomikoei dagokionez ere, beherakada bat izan dute aurrekontuetan, eta diru-laguntzetan nahiko antzeko mantendu da ekintza hauei eskaintzen zaien diru kopurua. Haurrentzako ekintzek gorakada bat izan dute bai aurrekontuan eta baita diru-laguntzetan ere, eta beraz, hauen aldeko apustu bat egin dela dirudi jaietan. Aipatzekoa da ekintza kulturalak diru-laguntzetan jasan duten beherakada ere, eta gainera, aurrekontuetan ekintza hauen presentzia ere ia ikusezina da. Dantza ekintzak ere oso modu nabarmenean joan dira beherantz aurrekontuetan, azken hiru urteetan eta diru-laguntzetan, agertu ere ez dira egiten: zergatik ote da? Ikuskizunei dagokionez, gorakada txiki bat izan du aurrekontuetan azken bi urteetan.

Bestetik, diru-laguntzen atalean aurrekontuetan agertu ere egiten ez diren ekintza motak agertzen zaizkigu. Horiek lirakeke, esaterako, nekazal batzordea, kirol ekintzak eta txosnak. Ekintza mota hauek zuzenean jasotako diru-laguntzetatik antolatzen dira eta beraz, ez dute aurrekontuetan parterik hartzen. Hemen, nabarmentzekoena, nekazal batzordeak jasotzen duen diru-kopurua da: aurrekontuen grafikoan kokatuko bagenu, musika ekintzen atzetik, bera izango litzateke diru-kopuru gehien eramaten duen ekintza edo eragile mota. Gainera, ekintza

gastronomikoekin batera, nekazal batzordea da hiru urteetan diru kopuru berbera jasotzen jarraitzen duen eragile gutxienetarikoa. Kirol ekintzei eta txosnei zuzendutako diru-laguntzek ere gorakada bat bizi izan dute azken urteetan, jasotzen duten diru-laguntza kopuruari dagokionez: kiroltara zuzentzen zen diru-laguntza kopurua handiagoa zen 2013an eta beraz, 2015a bitartean bizi izan duen gorakada ez da hain handia izan. Txosnei dagokionez, ordea, 2013an diru-laguntzetan hauen azpitik kokatzen baziren ere, azken bi urteetan gorakada nabarmena izan dute jasotako diru-laguntza kopuruetan.

Egindako elkarrizketa ezberdinetan, zenbait eragileren diru-laguntzak eta aurrekontuak "ukituezinak" direla adierazten da. Nonbait, diru-laguntzen banaketa honetan, zenbait gatazka egon dira, eta Udalean ze alderdi dagoen ere islatzen da hauetan emandako aldaketetan.

6. Mikel Deuna jaien inguruko analisi kualitatiboa

6.1. Jaien prestaketa eta antolakuntza

Atal honen helburua Oñatiko jaien prestaketa eta antolakuntza lanen lehen analisia egitea da, genero aldagaia ildo moduan hartuz. Jaien ospakizuna burutu ahal izateko, ezinbestekoa da, lehendabizi, aurretiko planifikazio batzuk adostea, antolaketa honetan parte hartuko duten pertsonak edo taldea finkatzea, eta herrien jaien berri ematea edo komunikatzea. Honela, jarraian, Oñatiko Mikel Deuna jaien antolaketa lanen ezaugarri nagusiak zeintzuk diren, bertan ze eragilek parte hartzen duten eta genero ikuspegitik hauen errealitatea nolakoa den, zein jaiak komunikatzerakoan ze mezu eta irudi erabiltzen diren azalduko da.

6.1.1. Ezaugarri nagusiak

Oñatiko Mikel Deuna jaien antolakuntzari dagokionez, ezaugarri aipagarriena, herriko eragile ezberdinek hauen antolakuntzan duten garrantzia litzateke eta baita Udalak duen eskuhartzea ere. Jai Batzorde bat osatzeko deialdi-irekia urtero egiten da, baina ez du arrakastarik: elkarte ezberdinetako oso ordezkari eta herritar gutxi agertzen dira bertara. Ondorioz, jaiak Udalaren eta banakako elkarte edo eragileen bidez antolatzen dira.

Prozesua nola doan zehatzago azaltzeko, aipatu behar da Udalaren aldetik hiru urrats nagusi ematen direla jaien antolaketa eta prestaketa lanak abiatzeko. Lehenik, Udalak herriko eragile ezberdinei, banan-bana, jai batzordea osatzeko deialdia edo gonbita luzatzen die. Deialdi honen barruan, buzoi batzuk jarriko direla adierazten da: buzoi hauek, oñatiar ezberdinek beren herriko jaien inguruan dituzten iritzi edo proposamenak modu librean iradokitzeke edo botatzeko guneak izango dira. Azkenik, eta jai batzordean eragile gehienak ez daudela ikusita, Udala eragile horiekin banan-banan harremanetan jartzen da, beren proposamenak jaso eta bitartekaritza-lanak egiteko: Udalaren zeregin bakarra hemen proposamena jaso, ebaluatu eta elkarte hauei behar dituzten baliabide ekonomiko zein materialak eskaintzea da. Harreman pertsonal hau da jaiak antolatzeko modu nagusia, sortzen den jai batzorde txikiak ez baitu indarririk berak bakarrik jaiak antolatzeko edo aldaketak egiteko.

Ordun hiru adar bezela daude: Jai batzordea, buzoiak eta harreman pertsonala. Baina osaketa horretan gehien-gehiena da harreman pertsonala.

Jaietako programa %100ean pasatzen da Udalaren eskuetatik: ekitaldi batzuk osorik Udalak antolatzen ditu (pentsatu, hautatu, ejekutatu, kontratatu eta ebaluatu) eta beste batzuen kasuan, bitartekaritza soil hori egiten da. Hala ere, Udalaren eginbehar nagusietako bat, elkarte ezberdinen proposamenak zein Udaletik egindakoak, jaien barruan (datetan, ordutegietan, aurrekontuetan...) osatzen, konbinatzen eta enkajutzen joatea da.

Orduan, ekintza multzo bat dago hasi eta amaitu gurea dena, eta gero daude beste ekitaldi batzuk, non herriko eragileak proposatzen dituzten, eta beraik ejekutatzen dituzten. Eta gure lana hor da horri baliabide ekonomikoak eta materialak ematea, baina horrekin batera, jaiak osatzen duten puzzle makro hori osatzea.

Elkarte guzti hauen eta herritarren artean, jai batzorde bateratu bat ez sortzeko arrazoiak ugariak izan daitezke: denbora falta, bileren ordutegia egokia ez izatea, militantzia oro har gizartean ere krisian dagoela, elkarte hauek bestela ere borondatezko lan-karga handia dutela... Hala ere, eta Udaleko ordezkari ezberdinekin (teknikari eta zinegotziak) izandako elkarrizketen ondoren, arrazoi nagusi bat errepikatu da: elkarte bakoitzak bere proposamena edo ekintza aurrera eramaten saiatzen dela, jaien marko orokorrean hainbeste erreparatu gabe.

Benetako jai batzorde bat litzake, deialdi ireki baten ondorioz, etorri igual zait 5 pertsona edo 25, baina bakoitza bere proposamenarekin etorri beharrean, papel txuri batekin etorriko balitz (...) bakoitza bere karretila hustuta (...)

Elkarte bakoitzak bere ekintza aurrera ateratzea nahi du, denbora luzez lan egiten dutelako hau atera dedin. Horrez gain, baliabide ekonomiko zein materialak eskatzerako garaian ere, askoz errazagoa da bakarka Udaleko teknikariekin harremanetan jartzea, modu pribatuan, beste elkarte guztien aurrean azaleratzea baino bakoitzak zenbat behar duen. Jaiak garrantzi handia dute Oñatin eta horregatik, hauen antolakuntzan diru dexente mugitzen da. Honek, zaildu egiten du, bertako kultur teknikariaren ustez, jai batzorde ireki eta bateratu baten antolaketa.

Bertako talde-eragileek ere bat egiten dute hausnarketa honekin. Hala ere, azaltzen dutenez, badaude eragile hauek ordezkari bidez batzen diren uneak edo elkartzeak, esaterako, jaien egitaraua bezalako gauza orokorrak adosteko. Dena den, eurak ere bat egiten dute teknikari eta zinegotziek hausnartutako ideia honekin: talde bakoitza bere ekitaldia aurrera ateratzeko lanean jarduten da eta ez ditu jaiak osotasunean begiratzen, edo ez du gainerako ekitaldien antolaketan begiratzen. Ondorioz, beste taldeen ekitaldiekin ados ez bagaude, edo jaiak beren osotasunean berdinzaleak izan daitezen egin nahi badugu, elkartu, batu, adostu edo jaiak elkarrekin osotasunean begiratzeko puntu komun bat faltako litzatekeela baieztatzen dute:

Hombre nik uste dut oso postura komodoa hartzen dugula ezta? Ez gara joaten jai batzordetara, eta jaiak ba hor joaten dira, ez? Gauza denak erdi antolatuta egoten dira, urte batetik bestera ez da gauza asko aldatzen, gero samurrena da kritika egitea ere bai ezta?

Nik uste, igual ardurak hartu bai baina partzialak ezta? Zure gauza horretan, ardurak daukazun horretan eta igual paso previo horretan, jaiak osotasunean begiratura ba ez dakit, horren inguruan ba iritziak eta, ba hor ez...

6.1.2. Eragileetako partaideen profila eta berdintasun ikuspegia

Eragile edo elkarte hauek, modu sakonagoan ezagutu ahal izateko, Udalak dituen elkarteekin kontaktuen zerrenda bat egin nahi izan dugu³, honek erraztuko baitu ondoren elkarte hauetako bakoitzeko parte hartzaileen inguruan hitz egitea.

³ Hurrengo taulan ez dira agertzen jaietan eragiten duten elkarte guztiak, bai ordea esanguratsuenak, kultur arloak adierazi digun bezala, jaso diren hauetaz gain ere buzoietan edo emailez ekarpenak egiten

KIROLETAKO ERAGILEAK	HERRI EGUNEKO ERAGILEAK	HERRIKO ERAGILEAK	OROKORRA
Bolajokua	Artisau Azoka	Lizargarate Elkartea	Txosnak
Plater tiraketa	Salmenta postuak	Ilatargi Taldea	
Arku Tiraketa	Sagardo Dastaketa	Bertso Eskola	
Txirrindularitza	Trikitalariak (musika eskola)	Konpartsak	
Tenisa	Dultzaineroak	Musika Banda	
Areto Futbola	Herri Kirolak	Musika Eskola	
Pelota partiduak	Barazkiak eta ganadua	Txistulariak	
Golf		Artzain Txakur leihaketa	
Mountanbike		Haurren danborradaren taldea	
		Haurren Eguna (Oinatz Dantza Taldea)	
		Ganbara Dantza Taldea	
		Ilunpetan	
		Argazkiak	
		“Pototak” talde feminista	
		Andraitz talde feminista	

Taula honetan jasotako **kiroletako eragileen** artean, gehienak gizonetzkoak direla baieztatu dezakegu, elkarrizketetatik jasotako informazioari jarraituz. Udaleko eragileen datu basean ere, talde hauetako kontaktu bezala gizonetzkoak agertzen dira: ez dago emakumerik. Antolatzen dituzten ekintzak berak ere izaera nahiko maskulinoa dute, nahiz eta gero, emakume bakan batzuek ere parte har dezaketen. Hala ere, Udalak ez du harreman zuzenik eragile hauekin, gestioa Udaleko kirolen gerentearen esku geratzen baita.

Herri Eguneko ekintzak antolatzen dituzten **eragileei** dagokionez ere gehienak gizonetzkoak direla esan dezakegu, elkarrizketetan jasotakotik eta eragileen datu basean agertzen diren kontaktuengatik, nahiz eta artisau azoka antolatzen duten gehineak emakumezkoak izan. Gainerako eragileen artean (herri kirolen antolakuntza, sagardo dastaketa, ganadu azokarena...) gehinak gizonak dira:

Danborradan parte hartzen duten eragile bezala gehiago emakumeak, ba igual delako jai bat dantzari eta musikari eta lotuagoa da eta ... eta ferixa eguneko, herri eguneko eragileak gizonetzkoak direla bai. Jaiak generoa du bai, denak bezala.

Hala ere, aipatzekoa da eragile guztietan ez dela agertzen kontakturako pertsonarik eta beraz, horietan emakumeren bat egon daitekeela. Bestetik, artisau azokarako antolaketan bai, emakume baten kontaktua agertzen da.

Herriko eragileen artean berriz, emakumeen parte hartzea handiagoa da. Hemen, haurren danborrada antolatzen duen talde berria (ia guztiz neskez osatua dagoena), zein Oinatz eta

dituztenak falta dira. Hauen informazioa ez da sistematizatzen eta horrexegatik ez da jasotzen diagnostiko honetan.

Ganbara dantza taldeak nabarmendu ditzakegu, euretan emakumeek parte hartze handiagoa dutelako. Emakumeen parte hartze nagusia, herriko eragileak kontuan hartuz, Egun Morea antolatzen duten Gazte Asanbladako talde feministak eta Andraitz emakume elkarteak osatzen dute.

Oinatz Dantza Taldearen barruan, aipatzekoa da, aldaketak egiteko asmoa eta gogo nabarmendu dela. Azaltzen dutenez, azken urteetan zenbait aspekturen inguruko (tartean generoarena) aldaketak egitea planteatu da, bertako partaideen aldetik. Esaterako, emakumeak erraldoiak eramaten hasi dira (orain arte gizonen soilik eramaten bazituzten ere). Hemendik aurrera ere aldaketa gehiago sustatzeko bidea hartu dute, besteak beste, horretarako talde bat sortuz:

Eta ya hurrengo pausua eta gehiago, dantzari dagokionez, izan da: talde bat sortu behar dugu, apur bat gidatzeko edo (...) ba gauza estrategikoak eta apur bat diagnosi bat eta, holako gauzak, gaur egun zer garen eta zer nahi dugun izatea edo ze aldaketa nahi dugun ematea.

Hala ere, bestelako taldeen barruan gizonen hartzen dute protagonismoa: Musika Banda, txistulariak, Bertso Eskola, Artzain Txakur Lehiaketaren antolakuntza-taldea... Bertso eskolari dagokionez ere, aipatu behar da emakume bertsolariak ekitaldietarako kontratatatzeko saiakera egiten badute ere, "kupoa betetzeko neurria soilik iristen direla. Eurak ere, 45 mutil eta 5 neska dira, euren artean.

Udaleko eragileei dagokionez, jaien edukien antolaketan zuzenean parte hartzen ez badu ere, berdintasun sailak zeharkako lan bat egiten du: 2015ean, esaterako, "Beldur Barik" GUNEA antolatu zuten jaien barruan. Bestela, kultura saila da (teknikaria eta suspertzailea) herriko eragileekin kontaktuan jartzen dena eta jaiak antolatzeko prestaketa lan nagusiak burutzen dituen, horretaz gain gazteria sailetik antolatzen dira umeentzako jarduerak, beti ere gazte eta hurrekin elkarlanean eginda, gazteriako hezitzaileekin lanketa egiten da uretan zehar.

6.1.3. Komunikazio elementuak: mezu eta irudien erabilera

Jaietako kartelak, egitarauak eta komunikatzeko erabiltzen diren bestelako testu eta irudiak, zuzenean lotzen dira jaien errepresentazioarekin. Era honetan, komunikazio elementuen bitartez emakume eta gizonen arteko desberdintasunak islatzen dira eta, testu eta irudi baztertzailak erabiltzean, erreproduzitu eta indartu ere egiten dira. Horregatik, oso garrantzitsua da irudi eta testuetan mezu berdinzaleak helaraztea eta emakume eta gizonen presentzia bermatzea. Hau kontuan izanik, azken urteetan lan handia egin dela aipatu digute Oñatiko Udal teknikariek, jaien berri emateko komunikazio elementu, mezu eta irudien aukeraketari dagokionez.

Azterketa honetan, lehendabizi Oñatiko jaien karteletan erreparatuko dugu. Hauek sortzeko, herritarren arteko kartel-lehiaketa bat egiten da eta ondoren, hauek epaimahai batetatik pasatu ondoren, egokiena hautatzen da. Aipatzekoa da ere, guk aztertu ditugun azken hiru urteetako jaien karteletan, "txantxikuaren" figurak protagonismo handia hartzen duela. Ondorioz, bertan ez da inolako genero-gatazka edo ez-parekidetasunik ematen, gizon-emakumeek izan dezaketen errepresentazioari dagokionez.



Irudia 1: Oñatiko Mikel Deuna jaietako kartelak. 2013,2014 eta 2015 urteak.
Iturria: Oñatiko Udala

Jarraitzeko, jaien egitarauetan helarazten diren mezu eta irudiak aztertuko dira ondoren. Lehen aipatu den bezala, saiakera bat egin da azken urteetan, batetik, alkatearen agurra helarazten den mezuan, genero ikuspuntua txertatzeko. Modu honetan, eta batez ere, gaztelerazko testuan, bi generoei erreferentzia egiten zaiela zaintzen da uneoro : *los y las oñatiarras...* Horrez gain, azken urtean, 2015ean, honako aipamen hau ere egiten da agur honetan:

Jakina da, jaixak danon gozamenerako egitten dirala, emakume nahiz gizakumiandako. Baiña hori horrela izan dadin, konpartiu degigun egun horreitan be etxeko eta zaintzako lanak, jaixetan dan-danok ondo pasaitteko astixa eta aukeria izateko. Eraso sexista edo sexu erasorik bageko jaixak izan dittezela, jaixetan edozerk eztauelako balixo. Oñatiko jaixak errespetu haundikuak izan dittezela, emakumezkuak beldur barik jaixak bizitteko dakoin eskubidia zainduaz guztion artian; ezezkuak betik ezezkuak dalako, bizi jaixak begirunez, parte hartuaz, alaittasunez.

2015eko Oñatiko Mikel Deuna jaien egitarauko alkatearen agurra.
Iturria: Oñatiko Udala

Horrez gain, egitarauko gaztelerazko zatiko mezu idatziari dagokionez ere, genero ikuspegia zaintzen joan da urtez urte. Hala ere, hemen ezin dugu analisi handirik egin, testu zatiak oso motzak eta deskriptiboak direlako. Egitarauan azaltzen diren argazkien aukeraketan ere, genero ikuspegia txertatzeko saiakera egon dela nabarmendu daiteke, emakume eta gizonen presentzia parekidea izan dadin. Oñatiko zinegotzi batek aipatzen du ikuspuntu hori txertatzeko saiakera nola abiarazi duen momenturen batean, eta lan hori zenbateraino kostatzen den:

Azkeneko urtetan zenbat lan, argazkian kontuarekin. (...) Ia egitaraua einda zegoenean, eta nerretzat izan zen kriston txokea. Ta ba hori, irizpide hori kontutan hartu barik eta, eta orain ematen du horrek kriston lana. Ba klaro, lehen samurragoa zen (...) Klaro guk forzatu egiten

dugu, gu argazkietan ez dugu irudi erreal bat ematen, ez? Lantzen dugunean bi gizona agertzen direnean bi emakume agertzea, hori programan jartzen dugu baino gero, hori ez da errealitatea. Ordun kostatzen da egitea, zaku pila bat argazkitan hori topa egitea.

Argazki hauez gain, jaietako egitarauan bertan, azalaren ondoren, 2014ko eta 2015eko jai egitarauetan behintzat, indarkeria sexistaren aurkako irudiak agertzen dira: 2014ean larrialdietarako telefono batzuk agertzen dira, sexu-erasoak jasotzen dituen edonork deitu ahal izateko jaietan zehar. Horrez gain, “ezetz ezetz dela” esplizitatzen da. 2015ean, berriz, jaietan jarriko den “Beldur Barik” guneari egiten zaio erreferentzia.



Irudia 2: 2014ko eta 2015eko Oñatiko jaien egitarauetan, azalaren ondorengo orriko irudiak. Iturria: Oñatiko Udala

6.2. Ekintzen garrantziaren araberrako analisia

Jaietan ekintza asko dauden arren, bakoitzaren garrantzia eta herritarrentzat duten balio sinbolikoa desberdina da. Jai guztiek dituzte **ekintza nagusi batzuk**, jaietan protagonismoa hartzen dutenak eta herritar gehien biltzen dituztenak. Hauetako batzuk, herriaren identitatearekin zuzenean lotzen diren eta herri horren bereizgarriak diren ekintzak izan daitezke. Bestetik, **bigarren mailako ekintzak** ere, zeinak ez diren aurrekoak bezain garrantzitsuak, baina toki propioa duten jaietako programan. Oñatiko kasuan, ekintza nagusienak musikarekin eta kirolekin erlazionatutakoak direla identifikatu dugu. Hala ere, haurren ekintzen presentzia ere azpimarratu beharrekoa da, eta baita egun seinatuetan ematen diren bestelako ekintza mota jakin batzuen edo ekintza gastronomikoen arrakasta ere (esaterako, Herri Eguneko artisau azoka eta sagardo dastaketa...).

Azkenik, **ekintza paraleloak** ere badaude, jai guztietan antzerakoak direnak eta ez dutenak ezaugarri bereizgarri handirik (ekintza kultural batzuk edo ikuskizunak adibidez). Hurrengo

ataletan, hiru kategoria hauen arabera sailkatuko ditugu Oñatiko jaietako jarduerak eta genero araberako hausnarketa gehituko diogu.

6.2.1. Ekintza mota nagusiak: musika- eta kirol- jarduerak

Jaietako momentu gorenek balio sinboliko handia dute eta jaietako ekintza zentralak dira. **Oñatiko kasuan, musika- eta kirol-jarduerak** dira jaietako izaera propioa eman eta ezaugarri identitario indartsuenak dituztenak. Haurrentzako ekintzek ere pisu handia dute jai hauetan baina hala ere, ez dute jaien identitatearekin, gure ustez behintzat, aurreko bi hauek duten lotura bera.

a) Musika jarduerak

Musikak protagonismo handia hartzen du Oñatiko jaietan eta horren erakusgarri da hiru kontzertugune ezberdin edukitzea, sarritan bateko eta besteko eskaintza musikala solapatzen delarik. Ekitaldi hauen pisua esanguratsua da eta oso elementu indartsua, jaien alderdi emozionalarekin konektatzen gaituelako. Gainera, aurrekontuaren portzentaje handiena eramaten du, nekazal batzordearekin batera. Publiko mota ezberdinei luzatutako eskaintza musikala egoten da eta eskaintza horren zati bat, Udalak hautatu eta kudeatzen badu ere, beste zati bat eragile ezberdinek egiten dute.

Musika jardueren barruan, nagusiki Udalak zein Txosnaguneak hautatutako kontzertuak (edo herritarren batzuek hautatu eta ondoren, hau kontratatzekeo gestioa Udalak gauzatutakoak) egoten dira. Horrez gain, ordea, herriko eragile nagusi batzuek ere antolatzen dituzte musika ekintzak. Hemen protagonismo berezia izango luke Oñatiko Musika Bandak eta honek eskaintzen dituen kalejirak eta kontzertuak. Baita Oñatiko Txistulari elkarteak eta bere goizetako kalejirak ere. Azkenik, heldu eta haurren danborradak leudeke, musika ekintza gisa kontsideratuak izan direnak. Modu zeharkakoan egiten diren kalejira ezberdinak (Rockalean...), mariatxiak edo jotak ere hor leudeke.

Jarduera hauen inguruko genero analisia egiteko aldagai askori erreparatu behar zaio, hala nola, jarduerako protagonistak, ikusleak edota transmititzen diren rol eta mezuak. Kontuan izan behar da, musika taldeak kontratatzerako garaian, oso garrantzitsua dela berdintasun irizpideak manentzea. Taula gainean jartzen den horrek eredarria izan behar du, besteak beste, taulapean egongo diren herritarrentzat.

Azken urteetan kontratatu diren musika taldeetan emakumeak egoteko saiakera batzuk egin badira ere (batez ere Egun Morean eta kolektibo feministaren aldetik egiten dira), azaldu beharra dago talde gehienak gizonek osatuak izan direla. Udalean egon badago honen kontzientzia, baina hori bermatzeko zailtasunak dituztela azaltzen dute, esaterako, jendeak gustuko dituen taldeetan emakumeen presentziarik ez badago. Bestetik, musika mota jakin batzuetan emakume-taldeak topatzea errazagoa dela ere adierazten da: esaterako, fandangoaren edo trikitiaren eremuan edo ekitaldietan, emakumeen presentzia askoz ugariagoa da. Musika mota "gogorragoetan" ordea, ez da halakorik ematen eta azken hauek dira herrian, batez ere gazteen artean, protagonismo eta pisu handiagoa dutenak.

Bestetik, aipatzekoa da herrian ohikoak diren musika talde-eragileetan ere, hala nola, herriko Musika Bandan, emakumeen parte hartzea urria dela. Bandaren barruan kokatzen diren emakumeek ere rol eta posizio jakinak hartzen dituztela aipatzen dute: flauta eta klarineta jotzen, esaterako, gehienak neskak direla aipatzen dute, baina gainerako instrumentuetan euren presentzia askoz urriagoa dela. Honek erakusten du, talde hauen barruan ere, gizon-emakumeen arteko rolen banaketa bat ematen dela.

b) Kirol jarduerak

Kirolei dagokionez, urtez urte errepikatzen diren ekintza asko daude: bolajokua, arku-tiraketa, plater-tiraketa, pilota txapelketa ezberdinak (herritarra eta txosnagunekoa), herri kirolak, txirrindulari lasterketa, mus txapelketa, nazioarteko artzain txakur lehiaketa, olinpiada moreak ere egon dira, sokamuturra haurrentzat... Hauek guztiek, oñatiarrak (edo oñatiar kolektibo bat) oso kirolzalea dela erakusten du. Euskal kulturaren ere oso indartsua da kirolzaletasun hau.

Jaietako kirol txapelketa eta erakustaldien inguruko genero hausnarketa hasteko, aipatzekoa da lehendabizi, indar fisiko eta ekintzailearekin lotutako kirol ekintzek esanahi berezi bat dutela euskal kulturaren baitan. Izan ere, tradizionalki euskaldunei aitortutako ezaugarri nagusietako bat indartsua izatearena izan da. Nahiz eta euskal emakumeek ere sozialki indarra dutela onartzen den, indar maskulinoa izan da espresio kultural moduan goraiatu eta erritualizatu dena. Honen erakustaldi esanguratsuen herri kirolak dira. Baserri munduko kirol hauek sortu ziren bizitza ereduak galtzen dauden arren, herri kirolen erritualizazioaren bitartez, garai bateko euskaldunen lana eta kemenari egiten zaio erreferentzia, euskal identitatearekin konektatuz. Jaietako kirol jarduerak identitate eta kultur agerraldi hauek plazaratzeko momentu aproposak dira.

Emakumearen posizio tradizionala herri kirolean ikuslearena, publikoarena, eta kasu batzuetan, animoak eman eta emozionalki kirolaria sostengatzearena izan da. Gaur egun, gero eta emakume gehiagok parte hartze dute herri kirolen modalitate desberdinetan, baina hala ere, txapelketetan gizonen indarra da oraindik goraiatzen gehien jasotzen duena.

Oñatin herri kirolean emakumeak txertatzeko saiakera bereziak egiten badira ere, ez da ahaztu behar bertako jaietan kirol maskulinizatu ugari ematen direla eta gainerako kirol horietan (bai parte hartzen eta bai antolaketan), emakumeen parte hartzea oso urria dela.

Horrez ondorioz, bereziki aipagarriak dira azken urteetan Egun Morearen barruan, herriko kolektibo feministak antolatu dituen kirol-ekitaldiak, aldarrikapen izaera nabaria dutenak: hala nola, Olinpiada Moreak eta FronteFeminista Txapelketa. Honek erakusten du herriko kolektibo jakin batek bestelako kirol-eredu edo ekitaldi batzuk bilatzen dituela, emakumeen parte hartzea hauetan sustatzeko. Jaietan antolatzen diren beste ohiko kirol ekitaldietan emakumeek ez dute eurentzako lekurik topatzen.

6.2.2. Ekintza paraleloak

Ekintza hauez gain, badaude beste ekintza batzuk ere jaietan berebiziko garrantzia dutenak eta urtero errepikatzen direnak. Hemen, batez ere, tipologia ezberdinetakoak diren baina aurrez aipatutako jaietako egun nagusi horietan, zein asteburuetan ematen diren ekintzak genituzke: Herri Eguneke nekazal azoka eta sagardo-dastaketa, herri bazkari ezberdinak, kazerolada eta bazkari feminista, margo-lehiaketa, bertsolariak, Atsolorra... Hauen artean, hurrengo tipologia nagusiek biltzen dituzten ekintzak hautatu ditugu: haurrentzako ekintzak, ekintza gastronomikoak eta dantza ekintzak.

a) Haurrentzako ekintzak

Haurrentzako jolasak goizean eta arratsaldean antolatzen dira, sarritan beste jarduera batzuekin paraleloan, eta beste bakar batzuk egun osoan zehar ere luzaten dira: adibidez, haur parkea egun osoan zehar mantentzen da irekita. Kasu hauetan, ohikoa izaten da familiako kide batzuk umeekin gelditzea eta sarritan, lan-banaketa hauetan, genero rolak azaleratzen dira. Izan ere, emakumeak izaten dira jai giroan ere umeen zaintzaz eta umeek gozatzeaz ardurua gehien hartzen dutenak, eta beraz, beraien interesen arabera jardueretan parte hartzeko aukera gutxiago izaten dute. Oñatiko jaietan ere, zaintza lanekiko rolen banaketa hau ematen dela aipatzen du herritar batek:

Jaietan gure rolak ez dira aldatzen, jaietan gure rolak berdinak dira eta emakumeak daukagun zaintzarena, eta bai ni egongo naiz ur botilarekin eta zapatilarekin eta nire senarra egongo da albulan horrela (patxara batean, dagoenaren keinua egiten du), bere lagun batekin edo, eta non dago umea edo galdetuz gero: Eee? Egingo du.

Umeentzako zuzendutako ekintza konkretuak ere antolatzen dira, pailazoak, jolasak, eurei soilik zuzenduta herri kirolak edo haur eta gurasoekin batean egiteko otorduak... Horrelako ikuskizunetan interesgarria litzateke genero ikuspegitik zein balore transmititzen diren eta protagonistak eta zaintzaile eta arduradunak zein sexuak diren aztertzea. Izan ere, normalean emakumeak arduratzen dira umei zuzendutako jarduerak prestatu eta aurrera eramateaz. Oinatz Dantza taldea da Oñatin haurren eguna antolatzeaz arduratzen dena, eta aipatzekoa da talde honetako partaide gehienak emakumezkoak direla. Horrez gain, interesgarria litzateke ikustea ere taldeko bakoitzak ze zereginen ardurua hartzen duen. Izan ere, bertako kide batek aipatzen zuenez, egun honetan aldaketaren bat egin da horren inguruan: emakumeek haurren eguneko ogi-tartekoak prestatzen zituzten lehen igande goizez, gizonak hesiak muntatzen zituzten bitartean.

b) Ekintza gastronomikoak

Ekintza gastronomikoen barruan, halako ekintzek protagonismo berezia hartzen duten eguna Herri Eguna litzateke (nahiz eta gainerako egunetan ere ekintza gastronomiko garrantzitsuak eman daitezkeen, esaterako txosna eremuan). Izan ere, egun honetan goiz osoa hartzen duen sagardo dastaketa ematen da, eta baita jende asko biltzen duen herri bazkaria ere. Horrez gain eta egun berean, txosna eremuan ere herri bazkari propioa ospatzen dute. Herri eguna herritar

asko mugiarazten dituen eguna izanik, ekitaldi hauek pisu handia dutela antzeman dezakegu egun honi ematen zaion garrantziaren aitopenearen barnean.

Ekitaldi hauetan parte hartzen dutenen artean, elkarrizketatutako herritar ezberdinek aipatzen dutenez, herritar guztiak ageri dira eta ez dago gizon-emakumeen artean bereizketa handirik, kuantitatiboki behintzat. Aztertu beharko litzateke parte hartze horretan ze jarrera ematen diren eta ze rol erreproduzitzen diren, esaterako bazkalorduan mahaiaren bueltan edo goizean, sagardoaren eta edanaren inguruan.

Oso interesgarria litzateke ere ikustea, ekitaldi hauen antolaketaren atzean nortzuk dauden, edo lan-banaketak nola egiten diren. Nekazal batzordea da nagusiki egun honen antolaketaz arduratzen dena: goizeko azoka, arratsaldeko herri kirolak... Ekintza gastronomiko hauen antolaketan, sagardo dastaketaz arduratzen den taldea legoke, alde batetik, eta ondoren, txosna eremuan zein bestela antolatzen den herri bazkarietako antolaketa eta prestaketa taldeak. Interesgarria litzateke ikustea, talde hauetan gizon-emakumeen presentzia nolakoa den eta ze jarrera ematen diren.

c) Dantza ekintzak

Dantza ekintzei dagokionez, bertako Oinatz Dantza Taldeak adierazten duen bezala, herriko dantza ekitaldi gehienak jaietatik at ematen dira, urtean zehar. Honen ondorioz, ezin izan dugu dantza ekintzen informazio askorik topatu. Hala ere eta eurak adierazi digutenez, emakumeen parte hartzea ugaria da taldean eta publikoki egiten diren dantza ikuskizunetan. Bestetik, leku ezberdinetan dantza ekitaldiak egiten dituztenean, gizonen dantza bat, emakumeen beste bat eta dantza mixto bat egiten dituztela adierazi dute, honela hiruen ordezkatzeari bilatuz.

Bestalde, dantzaldiak ditugu, dantza librea eta espontaneoak, alegia. Ez dauka alde zuzenik ezarritako pausurik eta ikusleek nahi dutenean parte hartzeko aukera dute. Hauek erromeriak edo kalejirak izan daitezke adibidez, eta gauean edo iluntzean egiten dira normalean. Emakumeek hartzen dute parte portzentaje handi batean, baina dantza formalarekin konparatuz, helburua ez da ikuskizun bat egitea edo herria ordezte, eta ondorioz, partaideek ez dute herritarren errekonozimendurik jasotzen. Dantzara ateratzen direnen helburua ondo pasatzea eta gozatzea da eta harremanak estutu eta herri nortasunari lotutako emoziozko momentuak bizitzen dira. Normalean, iluntze-gau aldean egiten dira.

6.3. Jaietako ekintzetan eta hauen antolaketan emandako aldaketa eta gatazkak

Oñatiko jaien analisi osatu bat egin ahal izateko, beharrezkoa da bertako ekintzetan eta hauen antolakuntzan azken urteetan eman diren aldaketa eta gatazkez hitz egitea. Hauen berri izateko, Udaleko teknikari eta ordezkari ezberdinekin egindako elkarrizketak zein herriko eragile ezberdinekin egindakoa baliatu ditugu nagusiki, jaien egitarautik pista batzuk ere jaso daitezkeen arren.

Aldaketa hauen artean, geroago aipatuko ditugun ekintza feministez gain, bestelako ekintza batzuk ere badaude. Tradizioak eraldatzea ez dela erraza erakusten duen adibide bat helduen danborradaren inguruan gertaturikoa izan zen. Adibide nagusia danborrada eredu ezberdinen arteko talkak bai ekintzan bai antolaketan sortutako aldaketak eragin zituen. Izan ere, orain dela urte batzuk, txosna eremutik bestelako danborrada eredu bat aldarrikatzeko hautua hartu zuten eta honela, ohiko danborradaren ondoren, danborrada eredu berri baten agerpena eman zen Oñatiko kaleetan. Alde batetik ordura arte musu-truk urteetan danborrada antolatzeko lanetan aritutako pertsonak zeuden, eta beste alde batetik eredu horrekiko kritikoak zirenak. Bi ereduaren arteko hausnarketa eta eztabaidan talka egon zen. Ez zen asmatu hausnarketa eta eztabaida hori gune, espazio edo prozesu egoki bat sortzen, eta haustura eman zen bi ikuspegiaren artean. Ohiko danborrada antolatzen zuen taldeak, euren lana zalantzan jarria izan zela sentitu eta minduta danborrada antolatzeari uko egitea erabaki zuten, danborrada, haur zein helduena, antolatuko zuen eragilerik gabe gertatu zen orduan. Guzti honek eztabaida are gehiago zabaldu zuen.

Eredu aldaketa honi dagokionez, herrian iritzi ezberdinak daudela azaltzen da:

Hor bai entzun direla era guztietako iritziak. Batzuk daude esaten dutenak: jo de puta- madre, ambientea jartzen dute... Gazte pila hori sartzetik aparte atzerritarrak integratu dira, iaz ere 8-10 atzerritar bakoitza bere banderakin, bere traje tipikoekin, peruarrak, kubatarrak... Klara, Donosti edo Azpeitiko danborrada eredu gustatzen zaionak hori ikusten du eta ez zaio gustatzen.

Beste batzuen ustez, jaien eta hauen antolaketaren inguruko hausnarketa bultzatzeko espazio bat ere ireki du gertakari honek:

Danborradak markatu gaitu eta atzetik horrek bazuen genero-ikuspegiaren kontu hori, eta gatzetxeak ere bere konpartsa propioetara tira egiten duenean da aldarri batzuk dituelako, eta aldarri potentenetako bat izan da. Eta horrek ere irau duena irau du baina guri ze pentsatua eman digu eta pentsatzen dut gaur arte danborradan ibili diren jendeak ere bai ez? Gauza asko egiten dira inertziaz eta horrek herrian hausnarketa ekarri zuen eta guri barne-mailan baita.

Helduen danborrada antolatzeko beste talde bat lortu bazen ere, haurrena antolatzeko talde bat topatzeko zailtasunak egon ziren. Azkenean, gazte talde berri batek hartu zuen ardura haurren danborrada antolatzeko. Gazte hauek nagusiki emakumezkoak direla ere azpimarratu behar da. Talde honek ere, haurren danborrada eredu aldatzeko saiakera bat martxan jarri du eta Udaleko ordezkarien ustez, talde egokia da etorkizunerako Oñatiko jaien planteamendu berri batekin abiatzeko.

Udaleko ordezkariak zein herri kiroletako antolatzailleek aipatzen duten bezala, kirol hauetako parte hartzaileei dagokionez eman den aldaketa ere, esanguratsua litzateke. Izan ere, historikoki oso ekintza maskulinoa izan den arren, azken urteetan ekintza hauetan ere emakumeen parte hartzea egon dadin saiakera bat egiten ari da. Horretarako, adibidez, ikastetxeetako gazteen talde mistoak integratu eta mundu horretan dabilzan emakumeak ekartzeko saiakera egin da :

Baina gaur egun jaialdi horren realitatea da, bi bikote mistoko frogak direla, eta hor ya emakumearen papera ez da jaialdia osatzea esateko: "Oñatiko jaialdian neska batek parte hartu du". Ez, ez. Kirolariak datoz kirolari bezela, igual da generoa, eta bikote mistoek egiten dituzte proba batzuk eta besteak. Eta nire ustez hori ya aurrerapausu haundi bat da.

Herri kirolez gain, aipatu behar da bestelako ekintzetan ere, emakumeen presentzia egoteko saiakera bat egin dela: esaterako, musika-taldeak hautatzerako garaian, emakumeak dauden taldeak kontratatuz, hau da, udaletik saiakera egiten ari da kontratazioetan irizpideak txertatzeko.

Udalak aldaketak bultzatzeko bestelako pausuak eman dituela ezin dugu ahaztu, hala nola hizkera sexista ekiditeko begirada txertatzea, irudien lanketa edo indarkeriaren kontrako kanpainak.

6.4. Aldaketarako esparruak eta egon daitezkeen erresistentziak

Historikoki, aldaketarako egon den esparru nagusia txosna eremua izan da Oñatiko jaietan. Bertan herriko gazte talde batzuk batzen denez eta herriko jai ofizialetatik, nolabait distantzia hartu dezakeen eremu bat denez, herriko jai ofizialen "beste bertsio" bat egiten dela bertan esan genezake.

Ez dira identifikatuta igual sentitzen gaur egungo gazteak, eredu honekin, uste dut hori ere badela ta igual kontuan eduki bihar dugu, (...) eta plan berriak urten dira, batez ere, txosna batzordetik baino bueno. Igual gaur eungo gazteria eredu hortan gehiago ikusten da, beste jaigune bat da, ez dakit (...)

Beste batzuek, sortu berri den danborrada antolatzeko gazteen talde berriaz gain, herrian aurrera eraman den "Eltzia" proiektuko parte hartzaileekin zerbait egin litekeela uste dute. Bertatik herritar horien parte hartzea bultzatu eta jaien inguruan hausnartu liteke.

Eta "Eltzia" izan daiteke oso adibide ona, ba talde bat bildu eta talde horrekin hasi beharko ginatke, ba igual gai zehatzekin, pauso txikiak ematen hasi beharko ginatke. Ze honek pentsamendu-aldaketa bat eskatzen du eta hori ezin da aldatu egun batetik bestera. Ta Eltzia adibide ona izan da. Ordun ba jaien eztaikit ze bloke konkretu hartu daitezkeen...

Horrez gain, jada jaien antolaketan ari diren beste talde eragile batzuk ere aipatu dira, besteak beste, Oinatz eta Ganbara dantza-taldeak.

Aldaketarako esparruak identifikatzeaz gain, aldaketa edo hausnarketa hauetarako erresistentziak non egon daitezkeen ere identifikatu da. Hemen, talderik tradizionalenak eta jaien antolaketan, urte gehien daramatzatenak identifikatu dira.

Ba talde zaharrenetan nik uste... Bolo txapelketa antolatzen duten hiru gizon edo lau gizonekin, ze landu dezakegu ikuspegi honetatik? Ze esan behar diegu? Parte hartzaileen kupo bat edo sari berezi bat?

las fuerzas vivas asko herri-mugimenduan ta iya instituzio bat dia baino bueno, herri-mugimendu izaerarekin. Ba adibidez: udal banda, txistulariak, badaude elkarte batzuk ba koruak... Ba beste maila baten sentitzen dira euren burua bestiekin konparatuta ez.

Azkenik, aipatu behar da Jai Batzorde baten edo jaiak antolatzen dituzten eragile guztiak batuko dituen puntu komun baten faltak ere, zailtzen duela aldaketak eragin eta bultzatzea. Jaiak amankomunean eta osotasunean begiratzuz gero, eragile bakoitzaren ekintza edo ekitaldi propietatik haratago, posible litzateke denen artean adostutako aldaketak txertatzen joatea. Honi begira, aldaketa posible bat, gauzak elkarrekin antolatzen hastea litzatekeela aipatzen dute. Horretarako, hasiera batean behintzat, ekintza txikietarako eragile batzuk biltzea eta elkarrekin lan egitea ondo legoke: esaterako, aurten, argazki erakusketako argazkiak bertso batekin joango dira, eta hori, argazkien erakusketa antolatzen duen taldearen eta bertso-eskolaren arteko elkarlanarekin egin da.

6.5. Ekintza feministak eta emakumeen parte hartzea jaietan

Jaietako ekintzetan azken urteetan eman diren aldaketak genero ikuspegi batetatik begiratuz gero, Egun Morearen sorrera azpimarratu behar dugu. Duela urte batzuk, herriko talde feministek (gazte asanbladako Pototak talde feminista eta Andraitz elkarte) egun hau sortu eta antolatzea erabaki zuten Oñatiko jaietan. Guri dagokigunez, kontuan izateko eguna dela iruditu zaigu, ez baita Euskal Herriko edozein herrietako jaien errealitatean ematen den zerbait.

Egun Moreko ekintza nagusiak kazerolada, bazkari feminista, urte batzuetan zehar olinpiada moreak, azken urtean fronteFeminista txapelketa, eta urte ezberdinetan egon ahal izan diren emakumeen musika-taldeak lirarteke.

Egun honetako ekintzen bereizgarri nagusia, jaietan ikuspuntu feministaren presentzia bat bermatzea da:

Aldarri feministak kalean egotea jaietan. Emakumeak bisibilizatu eta baita parte hartzaileak izateko, artistak ekarri eta holako gauzak bai baina egun horretan denok hartzen dugu parte.

Besteak beste, egun honen antolaketarekin hasteak, herriko gazte asanbladako zenbait emakume elkartu eta "Pototak" izeneko talde feminista sortzea ekarri zuen. Talde hau sortzeko bidea emateaz gain, emakumeen parte hartzea jaietan aktiboagoa izan dadin ere lagundu du, antolatzaileen arabera:

Jaietan ardurak hartzerako garaian eta, ba hori, neska gehiagok hartzen dute parte.

Antolatzaileak oso pozik daude egun honekin eta eurentzat, emakumeak batzea ahalbidetzen duen momentu bakarrenetakoa da jaietan. Horrez gain eta herriko emakumeak ezezik, inguruko herrietako kolektibo feministen artean ere egun seinalatua da Oñatiko Egun morea eta ondorioz, herri ezberdinetako kolektibo feminista ugari ere batzea ahalbidetzen duen egun bat da.

Hala ere, egindako elkarrizketetan jasotako informazioari jarraiki, zalantzak daude egun honen arrakastarekiko. Batzuen ustez, egun hau eta bertako ekintzak, txosna eremuan egiteak, oñatiar emakumeek ekintza hauetan izan dezaketen parte hartzea baldintzatzen du. Izan ere, Oñatiko emakume guztiak ez dira txosna eremuan eroso sentitzen.

Zergatik sortu diren? Ba behar bat dagoelako. Bakarrik ba behar hori askok ez dutela ikusten eta oso lotuta dagoela politikakin. Ekintza morera ez dira denak joaten. Perfil bateko jendea joaten da eta hori pena bat da(...) eta txosnetara, zein joaten da txosnetara? Igual denak ez dira atrebitzen neskak txosnetara joaten e? Hausnarketa interesante bat da hori (...). Nire ustez, egun morea egin behar da, baina denentzako egun morea. Eta txosnetatik atera behar da egun morea (...) Leku fisiko horrek markatzem du pillo bat.

Elkarrizketatutako guztiak konpartitzen dute Egun Moreak ez duela oñatiar emakumeen parte hartzeari dagokionez arrakasta berezirik. Kolektibo jakin bati zuzenduago dago, eta berez,

kolektibo horren artean, arrakasta handia badu ere, ez du lortzen eragin-eremu horretatik haratago ateratzea. Egun hau antolatzen duten kolektibo feministak ere ohartzen dira honetaz eta agian beste emakume perfil batzuk ere erakartzeko lan egin beharko luketela, edo behintzat horren inguruan hausnartu beharko luketela aipatzen dute. Batzuen ustez, egun hau generoaren gaian oso sentsibilizatua dagoen inguruko jendea biltzeko gai da, talde feminista ezberdinen presentzia izatekoa, baina oñatiar emakume askok ez daukate sensibildade hori hain garatua eta horrek, neurri batean, oztopatzen du.

Ba apur bat beste herrietako taldetako jende asko etorten den egun bat da baina ya benetan sentsibilizatuta dauden jende bat elkartzen da (...) Oso garatuta izan behar duzu sensibildade hori hara joateko.

Beraz, non daude oñatiar emakumeak jaietan? Non edo noiz hartzen dute parte gehien? Askok ez dute jakin galdera honi erantzuten eta isiltasun hori ere, oso esanguratsua dela iruditu zaigu.

7. Jaietan emakume eta gizonen parte hartzea genero ikuspegitik

Atal honetan jaietako prozesu osoan zehar (prestaketa lanetatik momentuko parte-hartzera) emakume eta gizonek duten presentzia eta betetzen duten rola aztertuko dira. Horretarako, aurretik deskribatu eta azaldutako barne-dinamika eta jardueretan oinarrituko gara; hau da, talde-eragileen artean nolako harremanak egituratzen diren, emakume eta gizonek zein ekintzetan parte hartzeko erraztasun eta zailtasun gehiago duten, eta zein arrazoi dauden errealitate hauen atzean.

7.1. Aurretiko planifikazioa eta prestaketa lanetan

Jaien aurretiko planifikazio eta prestaketa lanei dagokionez, kontuan izan behar da ekintza ezberdinak antolatzen dituzten talde ezberdinak euren artean biltzen direla eta ondoren, ordezkari baten bidez, talde ezberdinak biltzen direla jaien egutegia bezalako gauza orokor batzuk adosteko. Eragile hauen artean zenbat gizon eta zenbat emakume dauden ikustez gain, beharrezkoa litzateke hauek bertan parte hartzeko aukerak eta moduak berdinak ote diren.

Izan ere, kontuan hartu behar genukeen lehen puntua emakume eta gizonek bizitza sozialean parte hartzeko aukera desberdinak dituztela da. Emakumeek zaintza lanak (seme-alabenak, guraso nagusienak...) eta etxea mantentzeko ardurak gehiago hartzen dute beraien gain eta batzuetan etxetik kanpoko enpleguarekin ere uztartu behar dute (lanaldi bikoitza eginez). Ondorioz, aisialdi eta herrigintzan parte hartzeko denbora tarteak bilatzeko zailtasun gehiago izan ohi dituzte.

Beste alde batetik, talde hauetan parte hartzeko modua, betetako rolak eta jarrerak ere ezberdinak izango dira. Esaterako, bileretan parte hartzerako garaian, hitz egiteko denborak nola banatzen diren ikustea, batzuen eta besteen ekarpenak berdin baloratzen ote diren ikustea, erabakiak hartzerako garaian noren hitzek duten pisu gehiago neurtzea... Honi dagokionez, ikusi beharko litzateke ere talde ezberdinetako ordezkariak hautatzen direnean nola egiten den, eta zergatik aukeratzen diren aukeratzen direnak.

Azkenik, aipatu behar da auzoetako jaiak hemen ere eredu gisara edo hartzen dituztela. Izan ere, hauek bai dutela Jai Batzorde bateratu bat eta gainera, batzorde honetako partaideen artean, emakumeen presentzia ugaria eta garrantzitsua dela adierazten dute. Oro har, mutilak goizago edo adin gazteagoan irteten omen dira batzorde hauetatik, neskek adin helduagora arte jarraitzen duten bitartean.

7.2. Ospakizunetako antolakuntza eta burutzapenean

Aurretiko planifikazio eta antolakuntza lanez gain, jaien momentuan bertan gauzatzen diren lanak ere izugarritzko garrantzia dute. Momentu hauetan, talde-eragileez gain, interesatutako herritarrek ere har dezakete parte, antolatzaileei lagunduz.

Lan hauetan emakume eta gizonak aukeratzen duten ardura eta eginkizunak oso lotuta daude tradizionalki ezarritako genero rolek. Horregatik esan dezakegu bizitzaren beste esparru batzuetan (etxeko lanetan, enpleguan...) emakume eta gizonak betetzen duten funtzioak islatuko direla jaien testuinguruan ere. Funtzio sozial eta rol hauek erabat naturalizatuta daude, eta generoen arabera jakintzari eta esperientziari lotzen dira. Honen adibide da, esaterako, emakumeak janaria prestatzea gizonak gauzak montatzen dabiltzan bitartean:

Haurren egunetan mutilak ginen arduradunak, mutil izateagatik, plazan baillak jartzeko, eta neskek ziren arduradunak txorizo-bokadiloak egiteko.

Gainera, badaude ekintza batzuk urtero pertsona berdinak antolatu dituztenak, eta ondorioz, tradizioz sortutako erreferentziako pertsonak bihurtzen dira ekintza konkretu horien ardurak. Hauek denboran mantendu daitezke, batetik, pertsona berriak aurkezten ez direlako, baina bestetik, beraiek ere ohitura eta erritual horretan gustura daudelako eta ez dutelako erreleboa errazten. Izan ere, jaietan badaude aitorpen eta ohore handia ematen duten prestaketa lanak, ekintza mota ezberdinekin lotutakoak eta espazio publikoarekin gauzatzen direnak bereziki: esaterako, txakur lehiaketaren antolaketa edo musika bandaren kontzertuak.

Aurretik aipatu bezala, gizonak izaten dira normalean, bizitzako urte askotan zehar herriko dinamiketan parte hartzerako aukera gehiago izan dutenak, eta ondorioz erraztasun gehiago dute ekintza konkretuen ardurak erreferentziazko pertsonak bihurtzeko, ohorea duten ekintzetan bereziki. Honi gizonak tradizionalki egindako jarduerak balio sozial handiagoa dutela gehitzen zaio, eta beraz, ontzat joko da beraiek tradizioz parte hartu eta prestatuko jardueretan beraiek jarraitzea.

Azkenik, jaien antolakuntzari zuzendutako atal honetan, garrantzitsua da aipatzea jaietako programazioan agertzen diren ekintza publiko hauez gain, badaudela **etxe barruan gauzatzen diren beste jarduera anitz, bai ospakizun kutsua dutenak** (familiako bazkariak, esate baterako) edo jaien prestaketarekin lotuta daudenak (jantzi dotoreak prest edukitzea, etxeko lanak egin eta zaintza ardurak betetzea...). Hauek, naiz eta **jaiak ondo joan daitezen eta familiako loturak estutzeko oso garrantzitsuak izan, ez dute ekintza publikoek duten balio eta aitorpena**. Lan hauek **emakumeek betetzen dituzte** neurri handi batean.

7.3. Jaietako ekintza parte-hartzaileetan

Jaietako egitarauetan badaude herritarren parte-hartze aktiboa era zuzen batean sustatzen duten egitasmo eta jarduerak. Hauetara herritar orori parte-hartzeko deialdia egiten zaion arren, praktikan, jendarte profil konkretu batek hartzen du parte aktiboki, arrazoi desberdinak

direla medio: tradizioz eta ohituraz horrela izan delako, jarduera konkretu horretan gaitasun edo trebetasun gehiago aitortzen zaielako, interesgarria egiten zaielako bertan parte hartzea... Beste herritar batzuen parte-hartzea, ordea, ikusle edo laguntzaile izatera mugatzen da. Emakume eta gizonen artean desberdintasun nabarmenak antzeman dira parte-hartzeko maila eta eretan, diagnostiko honetan zehar, jarduera konkretuen bitartez azaltzen joan garen bezala. Honen atzean, genero rola daude, hau da, tradizionalki emakume eta gizonen gizartean izan duten posizioen islak, zeinak, egungo egituren bitartez, erreproduzitzen jarraitzen diren.

Batetik, jaien egitarauan azaltzen diren jarduera parte-hartzaile asko gizonen tradizionalki egindako jarduerak dira (etxetik kanpoko gastronomia, kirola...) eta, beraz, beraiei aitortu zaie gaitasun eta trebetasun gehiago esparru hauetan. Horregatik, nahiz eta teorian emakumeek ere parte hartu dezaketen, maskulinizatutako jarduerak baldin badira, emakumeek ez dute erreferenterik izango eta jarduera arrotzagoak izango dira beraientzat. Gainera, jarduera asko "betikoek" egindakoak direnez, beraietan sartzea are zailagoa bilakatzen da. Kontuan izan behar da gainera, jaietan ikuspegi integratzaile eta irekiagoa txertatzean, emakumeen parte-hartzea areagotzeaz gain, herritar profil oso desberdinentzat jai erakargarriagoak antolatzea lortzen dela.

Herriko jaietan parte hartzeak balio sinboliko handia du, momentu hauetan kohesionatzen baita taldea eta herritar sentimendu komuna konpartitzen da. Jaiak herriaren ondarea ere dira, kanpora begira zein barrura proiektatzen den herri izaera. Horregatik, jai berdinak izan ezean, herritarren portzentaje handi batentzat, herriarekiko sentimenduak bizi eta gozatzeko aukerak murrizten dira eta herriaren irudikapen maskulinizatu bat transmititu eta erreproduzitzen da.

Parte hartzera herritarrak gehien deitzen dituzten egun edo ekintzei dagokionez, Disfraz Eguna edo Errosario Bixamon Eguna, zein Herri Eguna ditugu. Disfraz Egunari dagokionez, musika ekintzak dira egun honetan gehien ematen diren ekintzak: kontzertuak, kalejirak, Dj-ak, Rockalean... Beraz, begiratu beharko da musikariak zein ekintza horretan parte hartzen dutenak, ze perfil eta roletan parte hartzen duten. Herri Egunari dagokionez eta Artisau azokan emakumeak aurki baditzakegu ere, gainerako ekintzen antolakuntzan gehienak gizonenak direla aipatu dugu lehen. Hala ere, ekintza hauetan parte hartzen, "herri osoa" egoten dela adierazten da egindako elkarrizketetan.

7.4. Jaietako ikuskizun ekintzetan

Jaietan badaude ikuskizun izaera izaten duten jarduerak, zeinetan espezializatutako pertsona edo talde batzuek, herritarrak entretenitu eta gozatzeko jarduera konkretuak egiten dituzten, Hauek kontratazioen bitartez egiten dira normalean: bertsolariak, musika taldeak, antzerkia, profesionalen kirol erakustaldiak...

Jarduera hauetan, eta orokorrean, kultur jardueretan, generoaren arabera kontraesan nabarmena azaleratzen da. Izan ere, emakumeak kultur ekoizle portzentaje handiena diren

bitartean, gizonak kultura-produzitzailerik portzentaje handiena dira. Honen atzean aurretik azaldutako espazio publiko eta pribatuaren arteko bereizketa tradizionala agertzen da, lehendabizikoa gizonari lotutakoa (etxetik kanpo lan egin, herria ordezkatu, parranda eta taberna giroa...) eta bigarrena emakumeari (etxeko lanak egin, familiaz arduratu...). Ondorioz, emakumeak, nahiz eta gizonak bezain onak izan zenbait esparrutan (umeak direnean bertsolaritzan edota musika mota batzuetan, adibidez), ez daude heziak protagonismoa izan eta aitortza soziala jasotzeko eta beraz, ez dute gizonak beste jaietako ikuskizun publikoetan parte hartzen.

Gainera, gizonari aitortu zaie gaitasun intelektual (arrazionaltasuna) eta fisiko gehiago (indarra, kirolerikoko egokitasuna), eta beraiek nabarmendu diren esparruak izan dira espazio publikoan errekonozimendua irabazi dutenak eta jaietan erritualizatu direnak. Gure herrietako jaietako ikuskizunak, beraz, gizentasun eredu konkretu batetik abiatutako jarduerak dira, eta ontzat eman balioa aitortzean, erreproduzitu egiten ditugu.

Oñatiko jaietari dagokionez, egiten diren kirol ikustaldiek, musika kontzertuek edo bandaren erakustaldiek, bertso ekitaldiek, gizonak dituzte protagonista gisara, nagusiki. Hala ere, badaude bestelako ekitaldi batzuk, irekiagoak izan daitezkeenak gizon eta emakumeen parte hartzerari: hala nola, margo-lehiaketak edo argazki-lehiaketak.

8. Indarkeria matxista jaietan

Jarraian, Oñatiko jaietan indarkeria matxistak izan duen (edo ez duen) presentzia aztertu nahi izan dugu. Jaien testuinguruan ematen diren faktore askok indarkeria matxista agertzea erraztu dezakete, hala nola, arau sozialak biguntzea, jende multzo handiak egotea, gauez kalean ibiltzea, besteak beste. Oihartzun gehien izaten duten gertaerak bortxaketak edo larritasun maila altuko erasoak izaten dira, baina beste motako erasoak ere gertatzen direnez, Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legean azaltzen diren hiru indarkeria motak azalduko ditugu:

-Eraso sexualak: Indarkeria edo beldurtzea tarteko direla.

-Abusu sexualak: Indarkeria edo beldurtzea tarteko ez direla egiten direnak. Hor sartzan dira, beren ezintasunagatik baliozko onespena eman ezin dezaketenei egiten zaizkienak (adin txikikoak, zentzu falta dutenak edo buruko gaixotasunen bat..)

-Jazarpen sexuala. Ahozko jokabideak, edo fisikoak, sexu kutsua dutenak eta gogoz kontrakoak, lan giroan sortzen direnak, ikastetxean etabar, pertsonaren duintasunaren aurka egiteko asmoz egiten direnean edo inguru beldurrarazte, erasokor, azpiratzaile, menderatzaile edo erasotzailea eratzeko asmoz egiten direnean.

Jaietan hiru bortizkeria mota gertatzen dira, baina arruntenak abusu sexualak eta jazarpen sexualak dira. Azken honetan, jabetasun eta permisibitatea aldatu egiten da inguru eta pertsonen arabera. Jaien testuinguruan, posible da bestelako testuinguru batzuetan onartuko ez liratekeen gauzek permisibitate gehiago hartzea. Izan ere, egunerokotik at dagoen eremua izateak, edo ohiko arau eta errutinak urrunago dauden momentuak izateak, zenbait jarreraren larritasuna gutxietsi edo oharkabean pasatzeko posibilitate gehiago egotea dakar: hala nola, ukitze bat edo gaizki esate bat. Honek guztiak giro ez seguru edo ez atsegin bat sortzen du jaietan parte hartzen duten emakumeentzat.

Gai honi dagokionez, izan ditugun elkarrizketa ezberdinetan ez da identifikatu eraso larririk egon denik, baina inolako indarkeria kasurik ez denik egon ere ez da esaten. Gehienek ustez, askotan ezin da modu ziur batean erantzun, halako ekintza asko (batez ere hain larriak ez direnak), ezkutatu egiten direlako.

Joan zen urteko ekintzan, joan zen urtean izan zan ez? Musika bukatu zela eta, kendu egin zuten neska bateri zeozer pasa zitzaiolako, mutil batek zerbat esan ziola... (...) Ba itxuria denez joan zan txisa egitera unibertsidade atzera, eta mutilen batek zerbat esan... Ez dago ondo, hori be biolentzia da, salatu behar da, ondo egin zuten, musika gelditu behar da ... Larriagorik? Nik sekula ez dut ezagutu. Ez dut esaten ez denik egon, seguru egon dela, baina ezkutatu egin da.

Udaletik azken urteetan jaietan indarkeriari buruzko kanpainak egiten hasi dira, Berdintasun politikak sortu ahala, nahiko xumeak baliabide eta irismen aldetik, indarkeriari buruz sentiberatzeko eta arreta zerbitzuen berri emateko. Nerabeei zuzendurik gidak ere argitaratu

eta banatu dira bestelako sentiberatze materialaz gain eta bi urtez jarraian Beldur Barik Gunea jarri da martxan. Erasoen arreta zerbitzuak badaude baina ez direla nahikoak uste da.

Udaletik oraindik gutxi landu den esparrua da gaiak duen garrantzi eta larritasuna kontuan izanda, eta egin den dena ez da nahiko da eta asko dugu egiteko oraindik, dena ez esatearren, ez bakarrik indarkeriari dagokionean, jaiak eta parekidetasunari dagokion guztiaren inguruan baizik.

Herriko kolektibo feministak, ostera, bai egin zuela halako protokolo bat lantzen hasteko saiakera. Protokolo honen izaera, eurak azaltzen dutenez, asistentziala baino gehiago aldarrikapenezkoa izango litzateke. Hala ere, faltan botatzen dute beste eremuetatik protokolo honen inguruan lan gehiago egin ez izatea zein horretarako baliabide eta asti nahikorik ez izatea:

Eta bueno, izaera berezi moduan protokolo bat hasi ginen lantzen, ez da protokolo asistentzial bat, da protokolo, erantzun politiko bat ematekoa (...) Ba pittin bat horrek bisibilizatzeko eta (...), ba samurrena zen ba talde feministak egitea eta yasta, ez? Eta bai egin genuen saiakera berezia ba hor dauden tade eragile horretako denok ados egoteko honekin eta eztabaida bat ematen saiatu ginen.

Amaitzeko, orain dela urte batzuk pasatako gertakari bat ere kontatzen dute elkarrizketatuek, jaien testuinguruaren barruan eta gai honekiko. Nonbait, jaietarako kontratatutako musikatalde bateko gitarrista indarkeria matxistagatik egotzia zegoela zabaldu zen herrian, eta Udalari eskatu zitzaion talde horri ezezkoa emateko. Taldea ordaindu egin behar izan zen, kontratua egina zelako, baina ez zen Oñatira ekarri. Herrian musikari honen aurkako mezuak ere agertu ziren hurrengo egunetan, istilu batzuk sortuz.

9. Herritarren “jaien autoetnografia kuadernoai” hurbilpena⁴

Metodologiako atalean aipatu bezala, diagnostikoa egin ostean herritar ezberdinekin eta politikari-teknikariekin “sentsibilizazio-hausnarketa-proposamen” saioak egin ziren.

Zinegotziekin eta herritarrekin egin ziren saioak helburu antzekoak zituzten, baina erabili ziren materialak eta ariketak ezberdinak izan ziren. Hain zuzen ere, helburu nagusia bi subjeto-talde hauek sentsibilizatzea eta haiekin batera hausnartzea zen, baina eragile bakoitzak lan esparru eta ardura maila ezberdina duenez lan egiteko ariketak ezberdinak izan ziren.

Herritarrei bideratutako saioen berri bi modutan egin zen; zuzeneko kontaktua berdintasun teknikariaren bitartez eta beste aldetik deialdi irekia herriko hedabideen bitartez. Herritarren saioak irekiak izan ziren, baina parte hartu zezaten interesez bereziko subjetoak ere bazeuden; jaien antolakuntzan parte hartzen duten eragile guztiak. Bi saio egin ziren⁵ ahal zen eragile eta herritar gehien batzeko.

Saio horien helburua nagusia herritarrak eta eragileak Mikel Deuna jaiak autoetnografiatzeko herramienta azaltzea eta herramienta hori erabiltzeko konpromezuak lortzea izan zen. Aipatu behar da parte hartu zuten herritarrak konpromezu handia agertu dutela jaiak autoetnografiatzearen lanarekin, hain zuzen ere, 22 lagunek parte hartu zuten saioetan eta 15 autoetnografia koaderno jaso dira.

Hurrengo lerroetan koaderno horietako ondorio nagusien hurbilpena duzu. Alde batetik 35 ekintza ezberdin autoetnografiatu zituzten, honako hau ekintzen zerrenda:

KOPURUA	BEHATUTAKO EKINTZAK
1	Sagardo dastaketa
2	Salda eta txorizo banaketa (arrano elkarte)
3	Bazkari eta poteo feminista
4	Txoznan bokatak saltzen
5	Gazta dastaketa / lehiaketa
6	Erroxario eguneko bazkari familiarra
7	Danborrada
8	Nagusien danborrada (udalaren zatia)
9	Manifestazioa: jantzi anteojo moreak, erasoei erantzun
10	Ibilgailu klasekoen karabana
11	Barrakak
12	Haurren jolasak

⁴ Autoetnografiako kuadernoak gehigarrietan atxikituko dira.

⁵ Txozten honetan bakarrik saio horietako baten akta batu da (gehigarrietan dago), hain zuzen ere, Farapik bideratu zuen saioana. 2. Saioa berdintasun teknikariak bideratu zuen.

13	Musika teknikariak eta eszenatokiaren montajea
14	Disko festa
15	Kontzertua: arkana has soul
16	Herriko bertsio taldeak
17	Oñatz dantza taldea
18	Zingira kontzertua
19	Egan erromeria
20	Doctor deseio kontzertua
21	Karikaldia
22	Tarantela orkestra
23	Herri bazkari osteko dantzaldi txikia eta musika
24	Sokamuturra
25	Zezenketa (errosarixo bixamunekoa)
26	Kale giroa (gau pasa)
27	Tabernetan gabez
28	Artzai txapelketa
29	Artzai txakur txapelketa prestatze lanak
30	San martineko bola jokoa
31	Pilota txapelketa finala
32	Txori malo eta erraldoiak
33	Atsolorra
34	Bixamon eguna
35	Artisau azoka (unibertsitatean)

35 ekintza hauetan esan dezakegu arlo ezberdinetako ekintzak analizatu direla, gastronomikoak, musika, umeak, desfileak, gaua, zezenak, kirolak, azokak, jokoak, txapelketak, eta bestelakoak.

Diagnostikoaren 6.2.1 atalean hausnartzen den bezala musika jardueretan nahiz eta saiakerak egin emakumezkoak kontratatzeke oraindik ere gizonezkoek egindako musika nagusi da eta herritarrek behatu dutenaren arabera hau konfirmatzen da. 11 ekintza musikal behatu dituzte eta guztietan oholtzan gainean gizonak nagusi direla azpimarratu dute, horretaz gain lerro hauetan ere bi gauza kontuan ipini nahiko genuke: alde batetik koadernoetako batean jasoa da Tarantela orkestra kontzertuan emakumezkoek arropa gutxi jantzita zutela, nolabait emakumeen gorputza objektua bihurtuz.

“Taldean 2 emakume daude. Arropa gutxirekin dantzan eta koroak egiten ari dira. Kontzertuaren ostean taberna batean entzundakoa: “bihar bai izango dutela lana barrenderuek gure adurra garbitzen!” [herritar baten autoetnografia koadernoan]

Bestalde, musikarekin lotua ere aipamen positiboak ere badaude, hain zuzen ere soinu teknikarien artean emakumezko bat ikusi zela. Nolabait holako ereduak ikustaraztea oso positiboa dela esan daiteke eta herritar batek jasota izatea are gehiago.

Bestaldetik, herritarrek ere behatu eta azpimarratu duten beste kontu bat kontzertuetan gizon eta emakumeen espazio okupazioa eta gorputzarekiko harremana. Hau da, ikusi denaren arabera erromeria estiloko kontzertuetan emakumeak nagusi dira ikusleen artean, baita dantzatzen duten bakarrak. Aldiz kontzertuak rock-a direnean emakumeak atzeko aldean kokatuta daude eta gizonak/mututilak lehen ilarak okupatzeko ohitura dute. Aldi berean, dantzari dagokionez ere gizon eta emakumeen arteko joera ezberdinak ikusi dituzte, gizon gutxi dantzatzen du eta bikoteka denean gizon-gizon bikoteak ez dira ikusten eta tokatu ezkerro deseroso ikusten zaiela nabarmendu dute. Aldiz, emakumezkoek dantzatzeko arazo gutxiago dituztela jaso dute.

“Egan erromeria plazan: laburbilduz, dantzan ari diren gehienak emakumeak. Taberna inguruan eta arkupetan gizon gehiago ikusten dira garagardo edo bestelakoak eskutan” [herritar baten autoetnografia koaderno]

Baita gizonak dantzatzeko orduan espazioa okupatzeko eta gizentasuna adierazteko dantza egiten dutela jaso da, hau da, dantza bortitzak eta traba sortzen dutenak dira.

“DJ-a: hasieran, saltoka aritu mutil koadrilatan, hainbatetan traba egin, gero dantzatu, disfrutatu” [herritar baten autoetnografia koaderno]

Baita musikarekin lotua koaderno batean baino gehiago ohartarazi dira “Karrikaldian” eta beste kontzertu batzuetan musika gizonen egitekoa dela eta gizonentzat.

Autoetnografia kuadernoetan ageri den beste kezka bat abestien letra izan da. Hau da, hauetan ardua jarri beharko litzatekeela ere ohartarazi da.

Gastronomiari dagokionez, 6 ekintza autoetnografiatu dituzte eta hauetan, diagnostikoak dioen bezala, lan banaketa generoen arabera ikusi/bizi dute. Interesantea da herritarretako baten hausnarketa nabarmentzea, hau da, nahiz eta parte hartzen ari direnak gaiarekin kontzientziatuak egon “konturatu gabe” rolak erreproduzitzen dira.

“lan banaketa naturala izan dela esango nuke, ni behintzat nahi nuen tokian jarri naiz ... nik uste dut lanean aritu garenak badugula kontzientzia minimo bat gai hauen inguruan baina ez gara konturatu eman dugun irudiaz” [herritar baten autoetnografia koaderno]

Generoaren araberako rol banaketei dagokionez eta gastronomiaren gaiarekin jarraituz, beste behaketa bat nabarmendu behar dugu, etxeko eremuan egin zena. Diagnostiko honetan bakarrik espazio publikoan gertatzen dena diagnostikatu da, baina autoetnografia batek bere etxeko Erroxario eguneko bazkaria jaso du. Kasu honetan argi usten du, jaiak posible direla lan erreproduktiboak eta ikusezinak direnak emakumezkoek (helduak) betetzen dituztelako, modu honetan gizonzkoek, emakumeekin konparatuz, jaietz disfrutatzeke denbora gehiago dute baita kalidade handiagokoa.

“ Errosario egunean familia bazkaria egon ohi da etxe askotan. Amonak prestatu du dena; ama laguntzera joan da. (emakumeak) bazkarirako erosketak egin dituzte, janaria prestatu eta denok iristerako dena gertu eduki. Aitona, osaba, koinatuak, aita

... ordurako etxera iritsi eta mahaian jarri dira zuzenean.” [herritar baten autoetnografia koadernoan]

Beste ekintza arloa umeentzako jardunak izan dira, honetan diagnostikoan zehar aipatu den bezala rolen araberrako aukeraketak txikitatik datorren kontu bat da, eta autoetnografiatan holakoak ere ikusi dira. Hala ere, azpimarratu nahiko genuke umeen ekintzetan aritzen diren monitoreen rolen araberrako banaketa. Dirudenez neska monitoreak jarduera lasaiagoetan aritzen ziren eta monitore mutilak kirola eta arriskuarekin lotuagoekin.

“errenteri plazan haurren jolasak: koltxonetetan eta pizza egiten nekak. Rokodromoa, tirolina, arku tiraketa: mutilak, denak gazteak” [herritar baten autoetnografia koadernoan]

Umeen zaintzaz ere aritu dira koadernoetan eta honetan ere diagnostikoan aipatzen dena ikusi da; hau da, umeen ekintzetara umeak zaintzera doazen gehienak amak dira. Gai honekin jarraituz behatu den Atsolorraren inguruko 3 gai landu nahiko genituzke. Lehenbizi azpimarratu, atsolorra irailatik irailera jaiotako ume Oñatiarrei egiten zaien ongi etorri errittoa dela eta behatzailearen inpresioen araberrera emakumeak protagonistak sentitzen diren espazio bat da, ama diren heinean *“emakumezkoak, askogatik ez bada ere, gehiengoa direla esango nuke. Emakume askoren aurpegietan poza, urduritasuna, hainbat sentimendu ageri dira. Gehiengoak egun hau aintzat hartu duela adierazten du, egun garrantzitsua dela beraiantzat”*. Umeekin harreman dagoen beste ekintzetan bezala honetan ere gehiengoa emakumeak dira, nahiz eta gizon asko egon. Bestetik, Atsolorran nahiz eta Oñatiar jai berri guztiak gonbidatuak egon behatzailearen iritziz kanpoko jatorria duten guraso gutxi daude *“gehienak bertakoak “txuriak” dira, nik bi atzerritar bakarrik ikusi ditut”*.

Bestaldetik Artzain txakur txapelketa ere autoetnografiatu da, ekintza honetan gizonen nagusitasuna agerian gelditu da, ez bakarrik txapelketa bertan baita aurre-antolaketan. Dirudenez, aurten ez da artzain emakumerik aurkeztu, epaimahaian denak gizonak ziren eta hizlaria ere gizonetzkoa. Aurreko eguneko prestaketetan gehiengoa ere gizonak izan ziren.

Epaimahaiei dagokionez, behatu denaren araberrera, hala nola gazta txapelketan, parekidetasuna ez da bermatzen.

Autoetnografia koadernoetan ba dira bi gai aipatu nahiko genituzkeenak: alde batetik egun moreko bazkaria eta manifestazioa eta bestaldetik *“taberna gauean/gaueko parranda”* tituluekin aipatzen dena.

Alde batetik gaueko parranda behaketan herritarrak honako, taberna baten barruan egon zen liskarra deskribatzen du eta bertan tabernarien jarreraz hitz egiten du.

“tabernarien artetik jarrera irmo bat izatea faltan bota nuen. Oso egoera desatsegina izan zen eta tabernarien artetik juergak jarraitzea eta giroa ez etetea garrantzitsuago zela iruditu zitzaidan.” [herritar baten autoetnografia koadernoan]

Bestetik, herritar berak, taberna baten barruan bestelako momentu bat deskribatzen du, mutilak tabernetan *“egoteko eta dantzatzeko”* duten jarreraz.

“emakumezkoek beraien “tokian” egiten dute dantza. Taldetxoan daude eta ez dute ondokoak molestatzen. Mutilak, koadrilan daudenean beraien espazioa ondo markatuz egiten duten “dantza”. Asko eta indarrez mugitzen dira askotan. Zerbait biolentoa balitz bezala. Zenbat aldiz jauzi zaizu tragoa edo egin dizute bultza ondoko koadrilakoak dantzatu beharrean elkarri bultzaka hasi direlako?... “[herritar baten autoetnografia koadernoan]

Azkenik, egun morearekiko bi ekintzak aipatu beharrean gaude, ekintza honek jasotako balorazio positiboarengatik: bazkari eta poteo feminista eta manifestazioa. Autoetnografiatik honako hausnarketa balioan jartzea gustatuko litzaiguke, honek duen balioagatik jaien filosofia bezala:

“barruko turnoa 5 mutilek egin zuten, urritasun mentala duten bi mutil saltsero. Ez da kasualitatea hauek egun honetan hemen ardura hori izatea. Izan ere, giro lasaia izateak laguntzen du haiek lana haien erritmora egitea eta efizientziari begiratu beharrean, egun honetan patxadan eta denok egoteari garrantzia ematean zaio” [herritar baten autoetnografia koadernoan]

Ondorioak

Jaiak Oñatiko komunitatea kohesionatzeko balio du, era berean identitatea barrura eta kanpora proiektatzeko unea da. Bestaldetik lotura handia baitute emozioen eta ideien munduarekin eta sentimendu eta emozio asko azaleratzen dira jaietan.

Jaietaz hitz egiteko unean erritoaz ere hitz egin behar da, eta nahiz eta erritoek iraganaren errepresentazioa egin, hauek egungo gizarte ordena erreproduzitzen dute. Erritoak askotan erresistentzietarako guneak dira baina ez dugu ahaztu behar erritoak eta tradizioak momentu oro eraldaketan daudela beraz, aldaketetarako aukerak ere eskaintzen dituzte.

Beraz hau kontutan izanda jaiak genero ikuspegitik aztertzea eta honen arabera neurriak hartzea garrantzitsua da.

Horretaz gain eta Oñatiri dagokionez, 28 ondorio azpimarratzea gustatuko litzaiguke:

Jaiak orokorrean:

1. Jaiak herriaren nortasunarekin oso lotuta daude eta herri identitatearen erakusgaiak dira.
2. Jaietan egiten diren errituek iragana edo/eta tradizioaren errepresentazioak dira eta egungo gizarte ordena erreproduzitzen dute, baita honen baitan dauden hierarkiak, eliteen eraginak, rola banaketak eta emakume eta gizonen irudi idealizatuak ere.
3. Errazagoa da eguneroko egituretan berdintasunaren aldeko aldaketak txertatzea esfera sinboliko eta erritokoetan baino.
4. Tradizioa ez da zerbait estatikoa baizik eta etengabeko eraldaketan dago. Horregatik, emakume eta gizonen parte hartze berdinzalearen kontra "tradizioa" aldarrikatzearen atzean, emakume eta gizonen botere banaketaren mantentzearekin eta pribilejio maskulinoak ez galtzearekin lotutako ideiak daude.
5. Jaiak, genero harremanak, rolak transmititzen eta indartzen dituen espazioak dira.
6. Jaietan modu kondentsatuan islatzen dira gizarte errealitatea eta honen baitan genero sistemak eta beste botere eta hierarkia harremanak.

Ekintzak eta programazioari dagokionez:

1. Mikel Deunako jaietan **Musika** (%32) da **ekintza kopuru gehien** duen arloa, bigarrena kirol ekintzak (%12) eta hirugarren haur ekintzak (%12).
2. Denborari dagokionez **musikak (%29) denbora gehien** okupatzen duen ekintza da, gero haurrentzako (%24) ekintzak eta hirugarren kirolak (%14) dira.

3. Aurrekontuei dagokionez, jaien gastuari aurre egiteko bi modu daude, diru-laguntzaz edo jaietako aurrekontuaren bitartez. Bi modu hauek batuta **musika** da ere **diru gehien** eramaten duen arloa, gero “besteak” eta nekazal batzordeak eta azkenik ekintza gastronomikoak eta haur ekintzak.
4. Aurreko puntuetan aipatzen diren 5 arloetan (musika, nekazal batzordea, kirola, haur ekintzak eta gastronomia), gizonetakoak nagusi direla esan daiteke, hau da, oholtzan gainean igotzen direnak gizonak dira, nekazal batzordeko gehiengoak gizonak dira eta artzain txapelketan parte hartzen duten guztiak gizonak dira ere, kirol eta gastronomia arloan parte hartzen duten gehiengoak gizonak (antolakuntzan, parte hartzean, epaimahai ...) dira beraz, dirua, denbora eta espazioaren okupazioa gizonetakoek zuzendua dago. Beste ondorio bat ere, ekintza horiek gizonetakoek gustuei erantzuten dutela esan dezakegu, nahiz eta gero publikoan denetik egon.
5. Programazioak ez ditu aldaketa esanguratsuak izan azken 3 urteetan. Nahiz eta programazioan berrikuntza gutxi egon, lan egiteko moduetan kultura teknikarien partetik aldaketak eta emakumeak bisibleagoak egiteko jarrera aktiboa dago, nahiz eta batzuetan helburua ez lortu.
6. Jaietan, berdintasunari dagokionez, susmatu dugun berrikuntzarik handiena Egun morea dela esan dezakegu.

Antolakuntza eta parte hartzeari dagokionez:

7. Antolakuntzari dagokionez, udalak pisu handia du, udala bait da jai batzordea deitzen duena, parte hartzeko buzoiak jartzen dituen, batzordetara joaten ez denekin banan banan biltzen dena eta baliabideak kudeatzen arduratzen dena.
8. Ekintza gehienak herriko eragileekin antolatzen dira, baina beste asko udalak antolatzen ditu.
9. Jaien antolakuntzan eragile bakoitzak bere ekitaldia aurrera ateratzeko lanean jarduten da eta ez ditu jaiak osotasunean begiratzen, ondorioz jai batzorde ahul bat dakartza. Beraz, beste taldeen ekitaldiekin ados ez bagaude, edo jaiak beren osotasunean berdinzaleak izan daitezzen egin nahi badugu, elkartu, batu, adostu edo jaiak elkarrekin osotasunean begiratzeko puntu komun bat faltako litzateke.
10. Jaien prestaketan eta antolakuntzan gehien bat gizonetakoek parte hartzen dute eta haiek dira erreferenteak jaien antolakuntzan.
11. Kalean egiten diren ekintzaz gain, jaiak burutzeko eremu pribatuan egiten direnak ez dira kontutan hartzen (zaintza lanak denak jaietz disfrutatu ahal izateko).
12. Egun morea eta haur danborradaren antolakuntzan gehiengoak emakumeetakoak dira.
13. Berdintasun ikuspegia ez da inoiz zehatz mehatz landu jaien antolakuntzan, hala ere, udal politikarien eta teknikarien jarrera oso positiboa da gai honen bueltan.

Hizkuntza eta iruditegiari dagokionez:

14. Jaietako kartelaren iruditeriari dagokionez, "txantxikua" nagusi izan da urteetan zehar eta analizatutakoaren arabera ez da iruditeri eta hizkuntza sexistarekin arazorik egon. Hala ere, gomendatzen da beti ere gai honekin tentuz ibiltzea.

Gatazkak eta emakumeen parte hartzeari mugak:

15. Mikel Deuna jaietan sortu berri den gatazka bat dago, baina oraindik itxi gabe dago: danborradak.
16. Emakumeak parte hartu ezin duten ekintzarik edo eremurik ez da identifikatu.

Indarkeriari dagokionez:

17. Udalak, jaietan emakumeen kontrako indarkeria kanpainak egin ditu.
18. Jaietan parte hartzen duten eragile guztien arteko indarkeri erantzun adostua eta koordinaturik ez da existitzen.

Eraldaketak eta ikuspegi feministari dagokionez:

19. Egun morea erreferentziala izan daiteke jaiak berdinzaleagoak bihurtze aldera, hau da, egun honetako filosofia eta ikuspegia aintzakotzat hartu daiteke jaiak antolatzerako orduan.
20. Egun moreko programazioan ekintza ezberdinen kopuruei dagokionez oreka lortu da. Hau irispide egokia bezala azpimarratu behar da.
21. Txosnen eremua eraldaketa gehien izan duen eremua izan da eta eraldaketak onartzeko eremu malguena bezala identifikatu da.
22. Prozesu osoan zehar herritarren konpromisoa oso altua izan da, eta egindako jaietako autoetnografia kopuruek eta kalitatea hori agerian usten dute.

Bibliografia

del Valle (1997) Andamios para una nueva ciudad: lecturas desde la antropología, Catedra.

EHBF (2014) Festa dezagun gaurdanik geroa [DVD].

Farapi (2009) Gipuzkoako lurralde historikoko jaiei buruzko azterketa, generoaren ikuspegitik. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Guilló (koord.) Festak, genero-harremank eta feminismoa, UEU.

Hobsbawm-ek (1986) "introduction: inventing traditions" in Hobsbawm and Ranger (ed) The invention of traditon. Cambridge university press.

Moral, B (koor) (2014) Emeki-emeki, berdintasunezko danborradarantz, Donostiako udala Berdintasun bulegoa.